


**ONDARRU,
KANTU, OTOI, ORRU ...**

Jaubea: Kultur Etxea - Casa Municipal de Cultura - Ondarroa
Legezko gordailua - Depósito Legal: B-1563 - 84
Zuzendari - Director: Augustin Zubikarai
Imprime: Gaubeka Irarkola

**ONDARRU,
KANTU, OTOI, ORRU ...**

Ondarroa'ko Kultur Etxearen
argitarapenak

1984



ONDARRU, KANTU, OTOI, ORRU...

Orra, izen onegaz; gure arteko abesti zar batzuh, gure lengoak beintzat maite zituen kantuak.

Batera edo bestera Ondarroa'ri ikutu egiten dautsenak dira.

Batzuk izerdi edo neke askoren ondoren diralako; besteak gure jai eta oitura zarretako urratsak, beste batzuk gure jede ta maitasuneko sinisteak eragiñak.

Ainbat onelako dira gure artean, eta ez genduke nai urteen lorrez galduta ikusterik. Erri bakoitzak bereak atara ezker, Euskalerriko aberastasuna errezago zaínduko litzake.

Gaur batzuk agertzen doguz. Origaitik gure arteko bertsolari, musikalari edo ta kantu egilliei eskatzen dautsegu ez minduteko, ez doguzala bastertuta, lenengo zenbaki onetan eurentzako egokitasunik billatu ez ba dogu be. Bertsolari zarren senideei, eurenak be erriaren goraz edo ta gure oiturei eutsi nairik egindakoak agertuta ikusi nai litzukenei be, gogoan doguzala.

Zelako arrera, alako bultzadaz jarraitu geinke lan onetan. Ez genduke nai errez osotu leikezan onelako argitaraldi batzuk egin barik lagaterik.

Uste dogu onelako agerpenak gure gurasoak edo ta gure denporetakuak pozik artuko dituezala.

Asko beintzat euren maite-miñezko dira eta ziur gagoz egun batzuk alaitu edo ta oroitza batzuk barriztuteko izango dirala. Beste batzuk gaurkoak be atsegiñez ikasiko dituelakoan gagoz.

Gure guraria, gure errian eta inguruan gure zarrak euki eben euskal giro jatorra aizetzea da. Ez gagoz aize barrien aurka. Baiña oraindik lengoak biotzean ikutu egiten dausku.

Origaitik eta orretan dator liburutxu au.

Ametsez beteta, • maitetsu eta biozkor eta arnas luzegarri lengoentzat; gaurkoentzat besterik ezean galdu ezin geinken kondaira baten adierazle. Edozetara ere gure txokoaren maitasunez beteta.

Erri kantuetan sarri gertaten da, batez be antxiñakoetan, berbetan, itzetan, aldakuntzak billatzea. Bai eta doiñu edo musiketan be. Bertsoak neurri bardiñetan izatean, errez aldatzen dituez doiñuz erriak ta taldeak, bai eta euren erreskada eta bertso berberen ugaritasunean biurritu be.

Ementxe bertan datozan bertso batsuen doiñua eskatu geuntsan bertsolari baten senideari, eta berberak esan euskun ez ekiala ziur, iru-lau doiñutara entzun zitula-ta. Orra eredu bat.

Guk, batari entzun, bestetan irakurri, al danik zintzoen argitaratu nai izan doguz eta beste txorta bat pozarren agertuko gendukela barrero diñogu.

Ondarroa'ko Kultur Etxeak atsegiñez kaleratzen dau «ONDARRU... kantu, otoi eta orru» deiturako txorta au.

Zuzendaria: AUGUSTIN ZUBIKARAI

O N D A R R U

K A N T U , O T O I E T A E R R E G U

E S T R O P A D E T A K U A K

1898'ko estropadak.	<i>Arrantzale batek</i>
1925'ko estropadak. Portugalete'kuak	<i>J. Burgoa</i>
1926'ko estropadak. Donosti'kuak.	<i>J. «Brontxe»</i>
1926'ko estropadak. «Kalandiko erregiñe Dionisi...»	<i>J. «Brontxe»</i>

G A B O N - U R T E B A R R I

Abendu santua da ta.

Goiko mendietatik

Kañabera orrekin

Iru errege datoz

G E R T A E R A K

Luis Gaiztoak. Baliarenak.	1854	
Edurra	1888	<i>T. Urrosolo</i>
Arrain andiarenak	1890	<i>T. Urrosolo</i>
Falua erreal	1887	<i>T. Urrosolo</i>
Amar mariñel itto...	1902	

J A I E T A K U A K

Aratusteak «Karnabalak» - Alkate jaun...	<i>T. Urrosolo</i>
Aratusteak » - Armozua pagatzen..	<i>T. Urrosolo</i>
Kuadrillan batzen gera,	<i>Azpillaga zarra</i>
San Juan'ek diño	

K R E S A L D U N A K

Besigu usaiña	<i>G. Solabarrieta</i>
Txomin Agirre	<i>J. Belaustegi</i>
Guztiok Ondarru	<i>V. Ureña</i>
Langostatan	

M A I T E M I N T S U A K


Aztanen portalian	
Jaiki arrantzaliak	
Markesaren alaba	<i>Iturrino</i>
Ana Juanixe	

S I N I S M E N A K E R A G I Ñ A K

Berriotxoarenak	<i>Xenpelar</i>
Erderaz zara Clara	
Jaungoikuak (Salbea)	
Pasiñoia	<i>Agustin Basterretxea</i>
Antigua'ko Ama. 1904	<i>J. M Imaz</i>

1998'KO

ESTROPADE TAKUAK



1- Bertso berriak paratutzeko artu det pentsamentua, esan bear det nola izan dan estropadako tratua, laguntasuna eskatzen dizut Ama Antiguakua, zuzen da garbi esplikatzeko ortxen pasatutakua.

2.- Gure txalupa azkarra dala esaten omen dirazi, pruebak onera ematen bada gaztetasunian ikusi, kostrutore bat kaia gañian esanaz omen zan asi, treneru ori ez da izango Kontxa onetan nagusi.

3- Leindabiziko iltarren lauan gañian jokaturzen asi, estropadarik jokaturzen guk or ezkenduan ikasi, esaten zuten kostautik laster juango zirala igesi, baña Kontxa ortan ikusi degu zein izandu dan nagusi.

4 - Esaten zuen iltarren lauan ateraturzen duanak, berriz zortzian irabaztea izango ditula lanak, milla peseta eta bandera arrapatzen dituanak, merezi ditu probintziako eta Bizkaiako famak.

5.- Urte batian Donosti ortan
paratu dute bandera,
orregatikan pentsatu degu
etorritzia onera,
onorko letra eder batzuk
jarrita dauska erdera,
kofradiko benta etxian
gordeta daukagu bera.

6.- Gure mutillak artzen zioten
arraunai ondo tamaña,
zeregatikan gertatu zaigun
oso kuadrilla biguna,
arraunlariak bizkorrak eta
patroia berriz txit fiña,
bestela nola egingo genduan
guk egin degun azaña.

7.- Gure patroiak arraunketa ona
zigunian guri ikusi,
korajez laister ujuka guri
atzetik zaigun asi,
Kontxa onetan gaurkuan zuek
izango zera nagusi,
orla bogatzen egun gutxitan
nola dezute ikasi?

8.- Santa Clarara allegatuta
deitu zigun espasio,
mutil maitiak zuekin beti
izaten nitzan fio,
txapela eskuan sartuta berak
koraje batekin dio,
auxen naikua dezute eta
ez batere egin geio.

9.- Banderan buelta emanda gero
brankaz giñanian jarri,
parrez atzetik asi zitzaigun
begiratzuz mutillari,
esaten zigun, arraunketa oiek
artuagatikan sarri,
zuen da ta nasai boatu
ez kasorik ein iñori.

10.- Lenbizikuan zazpireun eta
gero bandera ta milla,
animaturik etorri giñan
ara peseta oien billa,
kobardituta etziran egon
Manuel eta kuadrilla,
esaten dute bota dirala
saliran amaika milla.

11.- Ogei eta bat minutu eta
sei segundo errekorrian,
alaxen oiek markatu zuten
juzgauan eta errian,
tranparik gabe egin degu guk
egun argiren erdian,
alare sano gelditu gera
miñik ez degu gerrian.

12.- Irabazita genduztenian
banderakin ikusi,
Donostiako andre batzuek
burlaka ziraden asi,
ze uste zutenjuango giñala
kanpora andik igesi,
amak semiak ba dituen
orain dezute ikasi.

Oarra.- Bertso oneik «Arrantzale batek egiñak» lez agertu ziran bere garaian. Beraz ez dakigu gaur zein izan eikean egillea.

PORTUGALETE'KO ESTROPADAK

Mi-lla be- de- ra- tzi- reun o- ge- ta bost ur- te, l- ra- llan o- ge-
i- a se- ña- la- tzen du- te, es- tro- pa- da e- de- rrak i- za- nak
jo- ka- tu zan le- ku- a da Por- tu-
di- ra- da a- lle- na- tu da a- ra ma- ki- ña bat ien- te.

1- Milla bederatzireun
ogeta bost urte,
Irallaren ogeia
señalatzen dute,
estropada ederrak
izanak dirate,
jokatu zan lekua
da Portugalete,
allegatu da ara
makiña bat jente.

2 - Club Deportibo Aurrera
Ondarroatarrak
erakutsi dituzte
txit mutil azkarrak,
arraunlariak ere
ez dirade txarrak,
asko bildurtu ditu
oien afarrak,
erri onetan oraindik
ba dira indarrak.

3.- Bost trañeruzirala
jokatutzekuak,
aditzen eman zuen
ango juraduak,
iru ziran aurretik
ateratakuak,
Ondarru Portugalete
ta Santoñakuak,
markarik andienak
egin gurekuak.

4 - Zierbana ta Ondarru
ogeta zazpian
jokatzeko zirala
ondo ba zekian
guregana etortzen
bildurtutzen ziran,
orregaitik jarriak
dira atxakiak,
bestelanian pozik
etorriko ziran.

5.- Gurekin jokatzera
animatzen etzan,
begira zeguenak
ala dute esan,
atxekia ugari,
orregatik ba zan,
Zierbanatar ori
deskalifika zan
ala esan izango
sendo egon ba zan.

6.- Zierbanak ukatu,
Sestao zan jarri,
bigarren premia
eman zion ari,
asko gustatu zaie
Ondarrutarrari,
gogoz eman zioten
eskuak alkarri,
orregatik gelditu
ez da lotsagarri.

7 - Sestao, Zierbana
alkarren urrenak,
oiek ziran atzetik
jokatu zutenak
estropada onctan
ba ziraden lanak,
bigarren premia
dauka Zierbanak,
baña Ondarrutarrak
jaso dituz famak.

8.- Gure kontra ba ziran
burla ta oiuk,
ez da csan bearrik
auzo errikuak,
cnsaiuan asi ta
erretiratuak,
gu ez gera oraindik
ori eindakuak,
garialako mutil
petxu onekuak.

9- Azkenengo estropada
emen egin zala
ogeitairu urte da
jokatua zala,
asaba zarretatik
datorren indarra
dantzatu da ederki
arraunaren pala,
jakin daizu oraindik
lengoak gerala.

11- Kopa gurekin dago,
aurtengo urtian,
ta ondo gordetzea
saiatu gaitian
okernk ez ba dogu
bien bitartian,
allegatuko gara
alako batian,
agur adiskidea
urrengo artian.

10- Estropada aurretik,
jokatu onduan,
desafiorik asko
aditu genduan,
premiuak atera
dituzte kasuan,
Errege jaunak kopa
orra nun dagan,
Club Deportivo Aurrera
Ondarroakoan.

12.- Au sendo ba dakie
ingurutakuak,
txapeldunak gerala
Ondarruakuak,
orra amabi bertso
estropadakuak,
aurten Portugaleten
jokatutakuak,
oiek djra Burgoak
ataratukuak.

Jose Burgoa Bedialauneta.

Ondarrutarra.

Arrantzalea. 1950 urtean il zan.

Bertsolari ugaria. Estropadei buruzko iru-lau egin zitun, bai eta Antigua'ko Amaren jaietan be. Orrez gaiñera, Erbiari, Berriatu'ako zezenak, Santa Eufemín, Ezkerra'ri, Guardasolan istorixe eta abar.

1926 URTEKO ESTROPADETA KUAK

Ber- tso be- rri- ak jar- tze- ra nu- a gus- to du- e- nak a- di- tu, -
 ne- re ba- rre- na be- ti- a da- go ge- ia- go e- zin det ka- bi- tu pen- ts- a-
 men- tu- a ja- rri ör- du- ko bi- o- tza ga- ta mo- gi- tu, nai- a-
 go nu- ke pa- sa be- ze- la zu- zen kon- ta- tu ba- ni- tu.

Jose Brontxe'k jarriak

1- Bertso berriak jartzera nua
 gusto duenak aditu,
 nere barrena betia dago
 gciago czin kabitu,
 pentsamentuan jarri orduko
 biotza gata mugitu,
 naiago ncuke pasa bezela
 zuzen kontauko ba nitu.

2 - Motiborikan asko ba degu
 zerbait esaten asteko,
 danontzat igual cgon da aukera
 cstropara jokatzcko.
 Gurc auzuak modu onctan
 gu gorrotuan artzcko,
 arrazoirikan cz dct billatzen
 tamaña ortan jartzcko.

3.- Ogei ta zortzi urte dirade Donostiara juan ziran, iru treñeru illaren lauan ederki probatu zian, illan zortzian Donostiara ura bentajaz atzian, premia ta bandera artuta etxera etor zirian.

4.- Andik lau urte pasata gero Bilbora ziraden juan, iru premio egondu eta danok ziran Ondarruan. Bizkai danetik erri bakarra, falta izan zan órduan, beti ikasten baldin ba dabiz ez jarri aren onduan.

5.- Arrezkeroztik aditu degu makiña bat desprezio, lenago izanarren zerbait gaur eztubela balio, iru nagusi or daudetela Pasai, Donosti ta Orio, oyek guztiak aditu arren egondu gera serio.

6- Club Deportibo ondarrutarra juan dan urtian zan jarri, Portugaleten dagon kopia bear zuela ekarri, da bost treñeru alkarren kontra kostauan ziran ezarri, kopak guretzat ziraden baiña bai gorrotua ugari.

7- Estropada au irabazita jendia asi zan esaten, Bilboko kaldereteruari errez dala irabazten, orren abillak izan da zertan Donostira etzera joaten, Gipuzkoako mekanikuak probatu ditugu aurten.

8- Gipuzkoako profesoriak pentsauta zeukan jokuan Donostiarra lendabiziko bigarren Pasayakua, irugarren Fuenterrabia, laugarren Ondarruakua, baiña Beitian kuadrilla ezta orrela gelditzekua.

9.- Lekeitio ortan emen zeuzkaten fiestak preparatuta, ondarrutarrak baldin ba datoz Donostiatik galduta, iru korrida eiteko asmuhan dirua ere batuta, zezen jaubia bialdu dute bere zezenak artuta.

10- Bizkaia aldi euki nai bogu, gure onra eta fama, bi portu orri erregalatu lezake treñeru bana, da euren billa datozanian gañera jan eta edana, Errege jaunak kopatik berriz eran dezaten txanpana.

11.- Portu bi orrek nortzuk diraden
Lekeitio ta Bermeo,
egia klaru esatekotan
ajolarikan eztió,
motibo gabe emon dizue
makiña bat desprezio,
orain ixilik egon zeintekez
ezpadezue balio.

12.- Mundu onetan ikusten degu
persona askoren griña,
norbera baño abillagorik
iñork ikusi eziña;
guk estropara irabaztiak
eman al diote miña?
akaso igual zuek nagusi
juan da probatu ba ziña.

13.- Bizkaia eta gipuzkoarrak
konbenzitu al zerate oin,
ondarrutarrak baldin ba datoz
berriz ere listo egon.
Orregatikan musikak ere
gaur joten digute aliron,
nai eztuenak aditu bear
ondarrutarrak kanpeon.

14.- Sei estropada bost treñerutan
eta seiretan lenbizi,
gure denporan olakorikan
iñork ez degu ikusi,
ondarrutarrak arraun lanian
egiñagaitik itxusi,
obe zenduke eurak bezela
kostautik juaten ikasi.

Jose «Brontxe»: Jose Otxoantezana Urkiola.

Ondarrutarra.

Baporetako «makinista».

Bere zeregiña omenduz, ba daukaz bertso batzuk makiñistei egiñak.

Beste erriko bertsoen artean, oneik egin zitun:

Í926- Estropadetako kantak.

Í926- Donostia'ko estropadak.

Í926- «Kalandiko Erregiñe Dienesi»

Í93Í- Antigua'ko Ama errira ekartean. Eta abar.

ESTROPADETAKUAK

KALANDIKO

ERREGIÑE DIENESI

Ber-tso be- rri- ak jar- tze- ra nu- a gus- to du- e- nak e- ro- si, fi- es- tak
 no- la pa- sa di- tu- gun nai nu- ke a- di- e- ra- zi, mu- si- ka e- ta tan- bo- rra
 re- kin ga- ñe- ra or- fe- oi ta gu- zi, - Do- nos- ti- a- ko e- to- rre- ri- a e- san be-
 ar det len- bi- zi.

Jose Brontxe'k jarriak

1.- Bertso berriak jartzera nua gusto duenak erosi, fiestak nola pasa ditugun nai nuke adierazi, musika eta tanborrarekin gañera orfeoï ta guzi, Donostiako etorreria esan bear det lenbizi.

2.- Motor ta bapor etorri giñan Donostiatik batian, eta Debara sartu giñaden ia ondarrera artian, txupiñazo ta txistua joaz danok umore onian, da Mutrikuko agintariak an ziran gure tartian.

3.- Andik urtenda Mutrikun ere
igual egin genduan,
mendietatik guri begira
jendia franko zeguan,
mutrikuar ta elantxobetar
danok alkarren onduan,
anayak giñan bezela igual
etorrera egin genduan.

4.- Erregearen «FacUn»en ziran
gure mutillak atzetik,
motor ta bapor musikarekin
atera ziran etxetik,
leor guztia betia jentez
«váva» dearrez bestetik,
gaur estakigu zenbait persona
etorri zan erbestetik.

5.- Gero gabian etorri zakun
Mutrikutik tanborrada,
aditutzian gure biotzak
asi ziraden dardara,
guk ain gustora entzun genduen
orren tanborren arrara,
gure atzetik etorri zakun
musikarekin Debarra.

6.- Mutrikuarrak eta Debarrak
gurekin portatu zera,
zeregaitikan gu alabatzen
gugana etorri zera,
gu emen gaude, gure premiñan
iñoiz arkitzen ba zera,
anaitasun andienarekin
bizi nai degu aurrera.

7- Andikan laister aditu nuen
belarrietan pregoya,
gu alabatzen nola datorren
Durangotik orfeoia,
leku batetik adituko zan
orren kantuen orroya,
kristau oyek merezi dute
sonbreru orde z koroia.

8 - Beko fiestak akabatuta
ka'le andira giñan jaso,
ezin emanik egondu giñan
ordu betien lau paso,
erregiñatzat Dienesi ta
tanboliñakin Damaso,
obiagorik egongo ote da
mundu onetan akaso?

9 - Biba Mutriku eta Debarrak,
da Biba Durangokuak,
guztien partez milloi bana esker
Brontxe ondarrutarrak,
agradezitzen ondo dakigu
geuri ondo egindakuak,
zeruetara jasoko al zaitu
danok gure Jaungoikuak.

10- Ondo dakigu kale anditarrak
zuek zerana nagusi,
lenago ere zuen kalia
obetuen zan ikusi,
kalia orrek orlan ipintzen
nun ote dute ikasi?
Danon erregin or daukazute
Saguneko Dienesi.

11- Mai andi baten gañian zeuan
kale andiko erregiña,
jendiak bera salutatutzen
eiten zuen alegiña,
ondo ederki ematen dezu
bada zerbaiten premiña,
obetuago emango zuan
pixkat pintatu ba ziña.

13 - Fiestarikan asko ein deg
estropaden izenian,
jendia ere aspertua da
geiago ezin egiñian,
da pelikulak atera ditu
bialtzeko zuzenian,
emen ikusi ez dituenak
ikusiko-itu zinian.

12.- Gure mutillak nobliak dira
da biotzetik zabalak,
orregatikan orren buruak
arturik daukatez alak,
erri guztia disfrazatuta
ustez ziran karnabalak,
orrelangorik etzan egingo
izan ba ziran makalak.

14.- Koziñeriak ere ez dezut
aurten eduki ain txarrak
zeuei danori jaten ematen
atera tuzte aparrak,
berez umilla eta garbiak
jenioz barriz azkarrak,
orregatikan agertu dira
gure mutillen indarrak.

15 - Amabostagerren bertsuarekin
banua despeditzera,
piska bateko erretirua
orain ba guaz artzera,
guregatikan gaizki esaten
barrero asten ba zera,
gaizki esanka gugana aurten
zertan etorri etzera.

GOIKO MENDIATATIK ALEGRATU GAITEZEN

A- le - gra - tu - gai - te - zen gaur-ko ga- ba- re- kin gu- re Je-
sus o- na - ren e- to- rre- ra- re- kin, a- le - gra - tu gai - te - zen gaur-
ko ga- ba- re- kin - gu- re Je- sus o- na - ren e- to- rre- ra- re- kin.
Goi-ko men-di-e- ta- tik pas- to- ri- ak da- toz e- sa- nik ain- ge- ru- ak
jai- o da- la Je- sus Es- pi- ri- tu San- tu- - - ak e- mo- nik gra- zi- a a-
ren kon- tze- zi- u- a be- ti da gar- bi- a

The musical score is written in treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 3/8 time signature. It consists of six staves of music. The lyrics are written below the notes. The piece ends with a double bar line and a repeat sign.

Goiko mendietatik
pastoriak datoz,
esanik aingeruak
jaio dalajesus,
Espiritu Santuak
emonik grazia
aren kontzeziñoia
beti da garbia.

Belengo portalian
estalpe batian
jaio dajesus ona
ganadu artian,
astua ta idia
daukaz aldamendian
arnasaz berotzeko
oztutzen danian.

Ogeta laugarrena
dogu Abendua
desio genduena
logratu genduan,
gabeko amabiak
jo daben orduak
gure salbadoria
jaio da munduan.

ERREPIKA:

*Alegratu gaitezen
gaurko gabarekin
gure Jesus onaren
etorrerarekin.*

ABENDU SANTUA DA TA GAUR DALA JAÍO-JAIO

Gaur da-la jai- o - jai- o gaur da-la jai- o - tzi- - - a Se- mi- a jai- o ez-
ke- ro A- ma da don-tze- lli- a Ma- ri- a Je- sus Je- sus e- ta Ma-
ri- a Ma- ri- a, Je- sus.

1- Abendu santua da ta
ia da denporia,
orain kantatu daigun
Jesusen jaiotzia.

2- Gaur dala jaio jaio,
gaur dala jaiotzia,
Semiajaio ezkeru
ama da dontzellia.

3.- Ama Birjiña,
nun dozu semia?
-Orra nun daukazun
Belengu portalian.

4.- Josepe ze ordu da?
-Maria, gaberdia.
Zeruko izar ederra
laster dogu parian.

Errepika:
Maria Jesus,
Jesus eta Maria,
Maria Jesus.

KAÑABERA OREKIN

Ka- ña- be- ra o- rre- kin za- go- zan gi- zo- na, Jaun- goi-ko- ak di- zu- la zu-
 ri e- gun o- ña. ¿A- di- tu al de- zu i- xe- ren za- ra- ta- rik e- do ze- ru- e-
 ta- ko ain- ge- ru kan- ta rik? O- rain pa- re ga- be- a Je- sus gu- re mai-
 te- a gaur zeu- re yai- o- tze- a ze- le - bra- tu tze- ra. Ain- ge- ru- ak kan- ta,
 ar- tzai o- nak dan- tzan, guz- ti- ok a- la- ban- tza zu- ri zor di- zu- gu. As- to- ak a,
 i- di- ak mu, ats e- gi- nik as- ko ba- de- gu. Ar- tu ma- ki- llak e - ta
 jan- tzi a- bar- kak, ar- tzai- ak joan di- ra- de Je- su- sen bi- lla. ¡Ai zer a- le- gri- a dan
 dan- tzan jende gu- zi- al Sal- to- brin- ko e- gi- ñik da- nak joan di- ra.

Azkue'k KAÑABERA ORREKIN izenez asten dau kantu au. Baiña deitura ori bigarren bertsoarena da. Asiera onela da:

1- Albako untzurrunian
 aitz baten ganian
 gizon bat arrantzuan
 itxas basterrian.
 Itandu bear diot
 ete daberen entzun
 Belenen gaber dian
 zer gertatu zaigan.

2.- Kañabera orrekin
 zagozan gizona,
 Jaungoikuak dizula
 zuri egun ona;
 bart sentidu al dezu
 izeren zaratarik,
 edo entzun zeruko
 aingeru kantarik?

3.- Gizon gazte eder bat
 egozjantzia zan,
 bart gaberdian lergiz
 emen igaro zan.
 Arcn kanta soñuak
 pozez aditurik
 gau guztia eman det
 arrain bat gabarik.

5- Ncu ere joango nitzan
 gaur a ikustera,
 barrubiña batzuck
 banijua esatera,
 baña erropa zarrak,
 eskuak utzak,
 nola sartu nitcke
 Jaun baten etxian?

4- Gizon gazte etzan
 gu lert gorpuzduna,
 bart emen igaro dan
 gazte egaduna,
 ari zan Espiritu
 abisoa doiana,
 ipar suezgian
 erregiakana.

6- Ncu ere ardi narruak
 ncukazan soñian,
 baña ementxe egondu naz
 bart-ko gau guztian.
 Abe Maria eginda
 esan egiozu
 arrantzale pobre bat
 emen naitortzu.

7 - Arrantzale maitia
 neuk biotza nai det,
 urria ez zidarra
 ezerentzat ez det,
 oram aurrerantzian
 fede bizi bategaz
 bota treta guztiak
 Jesusen izenian.

Beste doiñu bat be erabilten da kantu onctarako. Au da:

Al- ba-ko gul-tzu- rru- na aitz ba-ten gai- ñi- an -, gi- zon bat a-rran-
 tzu- an i- txas baz-te- rri- an -, ka- ña- be- ra o- rre- kin za- bil-tzan gi- zo-
 na -, Jaun- goi- ko- ak di- zu- la zu- ri e- gun o- na. A- lai- tu ta poz- tu gai-
 te - zen gaur- ko ga- ba- re- kin -, gu- re Je- sus o- na - ren e- to- rre- ra- re- kin.

IRU ERREGA



The image shows two staves of musical notation in G major. The first staff is in 2/4 time and contains the lyrics: "I- ru e- rre- ge da - toz o- ri- en- te- ti- kan Be- len- e- ra au-". The second staff is in 3/4 time and contains the lyrics: "rre- tik da- kar- e- la ar- gi i- zar e- der bat bi- de- a e- ra- kus- te- ra." The music consists of eighth and sixteenth notes, with some rests and a double bar line at the end of the second staff.

1.- Zcruko crregea
jaio zan orduan
munduan
Herodes erregca
enbidiaz betca
bildurtuten asi zan.

2.- Herodes ercgea
zek bildurtzen zaitu?
Esaizu.
Jaio dan infantea
zeurorrek il eitea
lograduko eztozu.

3.- Iru erregc datoz
Orientetikan
Belenera,
aurretik dakarrela
izar argi eder bat
bidea crakustera.

4.- Eldu zireanean
Belen erriko
portalcra,
Jauna adoratzera
auspaz jausi zirean
belauniko lurrera.

5.- Ofrczietan dautsiez
euren prcsntcak
noblealc,
Batak dakar urrea,
besteak mirrea
ta intsentsua besteak.

6 - Beste bide batetik
biurtuten dira
crrira.
Herodesen asmuak
eta pentsamentuak
orain burlatu dira.

7 - Herodes burlaturik
 gelditu zanean,
 berenean.
 agindu eban ilteko
 iñozente guztiak
 Belengo errian.

8.- Ai ze negar andiak
 orduan Belenen
 eukezen!
 Amaren bularretetik
 errukia bagarik
 daroez umeak ilten.

(*Azkue'ren Cancionero Popular Vasco» tik artuta).*

Ondarroa'n ba dago, berbetan beintzat aldakuntza pixkat daukan beste bertso sail bat. Onek dira:

Iru errege datoz
 odeien artetik,
 Erregiak
 aurretik dakarrela
 argi izar ederra
 bidiak erakustera.

Juan dira Erregiak
 izarren atzetik,
 bidian
 artez eruan ditu
 eta ipiñi ditu
 -Belengo portalian.

Herodes burlaturik
 gelditu zanian
 azkenian
 agindu eban ilteko
 ume txiki guztiak
 Belengo ziudadian.

Herodes'ek dirautse
 ainbat preguntegaz:
 Nora zuaz?
 Belengo ziudadera
 jaiio dan infantia
 adoratzera guaz.

Jesus Jose ta Maria
 topau zituenian,
 Aldospian
 bertantxe jarri ziran
 Jauna adoratzera
 belauniko lurrian

Ai ze negargarria
 orduan Belenen,
 ziraden
 amen bularretatik
 errukitu gaberik
 seiñak erioezan ilten.

Adoratzan dozuenian
 emendik erdue,
 nik ere
 zuen Errege ori
 diñozuen jaun ori
 adoratu nai neuke.

Beste bide batetik
 biurtuten dira,
 Erregiak
 Herodes'en asmuak
 eta pentsamentuak
 bertan burlatuak dira.

ERREPIKA:
Zeruko Erregia
jaiio zan orduan,
munduan
Herodes erregia
inbiriaz betia
bildurtuten asi zan.

BALIARENAK

Lu - is gaiz-to-ak e-man le- nen-go ar-po-na-da, ba-le-a a- rra- pa- tze- ko txit

gi- zon o- na da; be-de-ra- tzi mi- lla e- rre- al zu- te- la jor- na-

la, es- ti- ma- tze- ko- a- zan or- du- ko ar- po- na- da.

1.- Milla zoitziareun da cincuenta y cuatruan gure donostiarrak baletara juan, orrelango konturik zeñiek du gogoan etzitzaigun aztuko denbora galduan.

2 - Donostiako jende prestu ta noblia, Gipuzkoa guzian parerik gabia, zeuek getariarrok gauz onen zaliak bisigua zala uste al zenduten balia?

3.- ~~ius~~ gaiztoak emanik lenengo arponada balia arrapatzeko txit gizon ona da estimatzekoa zan alako arponada bederatzi milla errial ba zuen jornala.

4.- Jose de Karamelok bigarren golpian ederki portatu da bere suertian, baliari odola bizkarra betian etzitzayon gelditu ito zan artian.

5- Ondorajuan átzaigun balia il zanian, etxera etorri giñan agiri etzanian. Getariarrak artu azaldu zanian ez genioten kendu lenengo esanian.

6.- Zuek getariarrok besigua ugari utzi ezaiozute arren baliari, ama igesi juan da umia da ori, segi ezaiozute nai ba dezute ari.

'-Besteren gauzarekin
gizonen sasoia
ortikan ere bada
bertso baten gaia,
petxutikan sartuko
ziola arpoia,
kulpa geiago ez da
au da arrazoia.

&- Jose Manuel Serenok
indarrak ba ditu,
oien zartadakua
Getarian aditu,
Jende guzia orduan
omen zan arritu,
izugarritzko famak
ark ekarri ditu.

9- Orixe da modua
gizona galtzeko,
petxua zabaldua
Luisek sartzeko,
paraje sagraduan
kolera jartzeko
injenio txit ederra
zeruan sartzeko.

10.- Getariar oriek
etziran izutzen
Antiguora juan da
balia ikusten,
paga biar zuenik
etzuen pentsatzen,
sartu baño lenago
bi txanpona zuzen.

Oarrak.- Kantu au gure zarrak asko erabilten ekiena áa. Baiña antxiñakoekaz gertaten dan eran, ez da doiñu bakarria erabilten.

Goiko au R.M. Azkue'k bere «Cancionero Popular Vascb»n agertzen dau, Hondarribian batutako lez eta iru bertso bakarrekin. Bere 1,2 eta 3, gure bertso zerrenda oñtan, 3, 4 eta 8 dira. Kantuaren deitura «Luis Gaiztoak».

Luis Gaizto ori, Azkue'k esaten dau ondarrutarra zala, nai eta irurogetak urte ziralala Hondarribian bizi.

Antonio Zabala Aitak, «Auspoa» sailleko 133 zenbakian agertzen dau Baliarenak deitureagaz. Bertan esaten dau Ondarroa'ko Jose Mari Etxaburu gandik jaso zitula zortzi bertso. Eta bestetik Ondarroa'ko Euskaitzaie Bazkuna'k, gerra aurretik Jose Ariztimuño «Aitzol» eri bialdutako paperetan be zortzi agertzen dirala, aldakuntza txiki batzukin.

Guk antxiñako paper zarretan billatu doguzan lez, amar bertso oneik agertzen doguz.

Gaiñera, Ondarroa'n beste doiñu bat ezagunago zan eta au erabilten eben geienak. Pozik agertuten dogu:

EDORRA

Mi- lla zor-tzi-reun la- roi ta zor- tzi di- tu aur-ten- go ur- ti- ak e- ta ber-
tsu-ak a- te- ra- tze-ko dau- de mo- ti- bo aun- di- ak. E- lur-tzan- di- ak a- rra- pa di- tu
men- di al- tu- ko jen- di- ak, go- ses da pe- naz il- go - di- ran ja- yo- ta
dau- den u- mi- ak.

1- Milla zortzireun laroi ta zortzi ditu aurtengo urtiak eta bertsoak paratutzeko daude motibo andiak. Edurtza andiak arrapau ditu mendi altuko jentziak, pozez da penaz ilgo orte dira jaiota dauden umeak.

2.- Probintziatik Madri aldera bota dituzte partiak, guztiak dira desgraziazko barri txit negargarriak. Danak diote nola edurrez beterik dauden mendiak, ardi txabola baserri etxe kalerañoko guztiak.

3- Nola egongo ote dirade an bizi diran tristreak, penatutzian bakar bakarrik arritzen gara guztiak, dudarik gabe pasau biardute otz andi eta gosiak istorian ba kontauko dabe andik datorren biziak.

4.- Elur andien pixuarekin tellatu danak jausiak, aixe ipar otzak pasatzen orma zarraren artiak, erdi itxirik dauden ate ta bentana zulo guztiak, etxe guztian korrituzen da beneno bildurgarria.

5.- Famili danak kuxkurturikan
dago bastertzo batian,
eskastxo duen leku epel ta
su apurraren aurrian.
Entzuten dira otso zaratak
bildurgarriak ateian,
etxe danaren jirarí dabilta
zerbait iruntzi artian.

6.- Ganadu danak gosez il bear
bei txal eta ardiak,
bedar preskorik ez da agiri
tapau dirade guztiak,
gaztañak eskas artua gitxi
nagusiantzat garia,
Agustuan eramana dira
jan eztaiean txoriak.

7.- Azken eman du edur tokiak
ta bost kanan edurra,
kristau bizirik ezin pasatu
txara edo egur lekura,
dispentsa utsa plumarik gabe
au pena eta tristura,
mendi altuko labradoria
aurtengo urtian galdu da.

8- Eguna juanda bildur da penaz
arratza dakar illuna,
biotza triste begiak negar
iturri bien modura,
Jesus onari erregututzen
Famili danak eztura,
arren libra gaizuzjauna
bestela eraman zerura.

9- Konsideratu dezagun nola
egiten degun pekatu,
eta batera bildurrik gabe
Jesus maitea ukatu,
orregaitikan erakusten du
gu nola eskarmentatu,
zar eta gazte, pobre ta aberatz
danok kastigatzen gaitu.

10.- Nere biotza urtzen dijua,
negarra dator begira,
illundur,
negarra dator begira,
begira,
illundurikan daukadaz biak
moteltzen asi da miña,
sentidu danak gelditu naian
osola jira ta bira,
zerbait geiago kantau nairren
ezin emanik begira.

*(Bertso oneik TIBURTZIO URRUSOLO'k egiñak dira, 1888 urte-
ko edurtean).*

ARRAÍN ANDIARENAK

Mi-lla zor-tzi-reun la-ro-gei ta-mar ga-rren ur-ti-ak 'sar- tu- rik,
A- pril i- lla- ren o-gei ga- rre- na ja- rri da se- ña- la- tu- rik, Es- pa-
ñan e- ta es- tran- je- ri- an gu- zi- ak ao- tan ar- tu- rik bo- ta di- tuz- te
pa- pe- rak da- nak o- so , gfo- ri- az be- te- rik, On- da- rru- ta- rrak ai- ek
mu- ti- llak ez da en- tzu- ten bes- te- rik.

(1890'n arrain andi bat arrantzatu ebenondarrutarrak eta Tiburtzio Urrusolo'k bertso oñeikjarri).

- | | |
|---|---|
| 1.- Milla zortzireun larogei ta amar garren urtian sarturik,
April illaren ogeigarrena jarri da seinalaturik,
Españan eta Etranjerian guziak aotan arturik
bota dituzte paperak danak oso gloriaz beterik,
«Ondarrutarrak aiek mutillak» ez da entzuten besterik. | 2.- Egun orretan zer egin zuten emengo arrantzaliak,
mundu guztiak jakin dezaten jarriko du istoriak,
begira danok papera oni zabal zabalik begiak,
gezurrik gabe jarriko ditut pasatutako egiak,
baldin laguntzen ba dit onetan gure Jaunaren graziak. |
|---|---|

3.- Berrogei eta bat oñak luze dauzkan treñeru batian, amar gizon ta iru mutillak itxasora atera ziran, geienez ere legorretikan ízango ziran iru millan, bildurgarrizko arrain aundi bat azaldu zan oien jiran, ta bereala persegitzeko gogoz preparatu ziran.

4 - Isidoro Elu oien patrioiak esan zien laguneri, nai ba dezute arrimatzia fustoria egingo det ori, foga aurrera ara nun dagon errezjoko degu ori, gero kontuan egon guziok miñik egin gabe iñori, tiburoi kasta gaizto itxurako arrai itzala da ori.

5.- Allegatzian bere aurrera tira ondo arponada, ia mutillak, leku onian sartu iñola al bada, txikotak listo arriatzeko arrain oso aundia da, galduko gaitu guzi guziok ondo trinkatzen ez ba da, artu labanak, ebaki sokak asko moduz asten ba da.

6 - Esponiturik momentu artan guztiz peligro andian azkar Liborio Bedialauneta jarri zan txalupa aurrian eta arturik arpoi ta soka bere besoan betian, garboz tiratu eta sarturik utzi zion aragian, oso egoki enkajatu zan lantza tripa barrenian.

7.- Ondo erituta jarri zanian orduantxe bai kontuak, Norestian barruna asi zan zabaldurikan eguak, buztan palakin singatzen zuben baporen aundien moduan, momentu artan bildurtuko etzan gizonik ez da munduan, bere arpoia libratu nairik errebenta zan orduan.

8.- Luzaro beian ibiliarren etorri zan azalera, iru lau aldiz eragin zigun makiña bat gorabera, bañon artunk era on baten txikotakin gogor bera, aldatu giñion Tengo lekutik arpoia buru partera, solcakin fuerte sagan arturik abia giñan etxera.

9.- Goizeko amaika orduak ziran lenengo jo zutenian, gauba eginda zortzirak ia legorrera zutenian, zeinbat trabaju igaro zuten oiek bien bitartian, ezin lezake plumakin jarri klaro begien aurrean, ondar sekutan altxata utzi zuten bizi zan artian.

10- Ogei ta amabi pie zan luze, pisuz zazpireun arrua, ondoko arraya pustoki gabe diote dala eskaulua, ez du iñortxok ezagututzen ai au piztiya modua, Club Nautikuen baporak azkar Bilbo aldera dijua, ondarrutarrak sozio oidi orra zer erregalua.

ESTROPADETAKUAK

KALANDIKO

ERREGÍÑE DIENESI

Ber-tso be- rri- ak jar- tze- ra nu- a gus- to du- e- nak e- ro- si, fi- es- tak
 no- la pa- sa di- tu- gun nai nu- ke a- di- e- ra- zi, mu- si- ka e- ta tan- bo- rra
 re- kін ga- ñe- ra or- fe- oi ta gu- zi, - Do- nos- ti- a- ko e- to- rre- ri- a e- san be-
 ar det len- bi- zi.

Josc Brontxe'k jarriak

1- Bertso berriak jartzera nua
 gusto ducnak erosi,
 fiestak nola pasa ditugun
 nai nukc adicrazi,
 musika cta tanborrarckin
 gañcra orfcoi ta guzi,
 Donostiako ctorreria
 esan bear det lenbizi.

2.- Motor ta bapor ctorri giñan
 Donostiatik batian,
 eta Dcbara sartu giñadcn
 ia ondarrera artian,
 txupiñazo ta txistua joaz
 danok umorc onian,
 da Mutrikuko agintariak
 an ziran gurc tartian.

3.- Andik urtenda Mutrikun ere
igual egm genduan,
mendietatik guri begira
jendia franko zeguan,
mutrikuar ta elantxobetar
danok alkarren onduan,
anayak giñan bezela igual
etorrera egin genduan.

4.- Erregearen «Facun»en ziran
gure mutillak atzetik,
motor ta bapor musikarekin
atera ziran etxetik,
leor guztia betia jentez
«viva» dearrez bestetik,
gaur estakigu zenbait persona
etorri zan erbestetik.

5.- Gero gabian etorri zakun
Mutrikutik tanborrada,
aditutzian gure biotzak
asi ziraden dardara,
guk ain gustora entzun genduen
orren tanborren arrara,
gure atzetik etorri zakun
musikarekin Debarra.

6.- Mutrikuarrak eta Debarrak
gurekin portatu zera,
zeregaitikan gu alabaten
gugana etorri zera,
gu emen gaude, gure premiñan
iñoiz arkitzen ba zera,
anaitasun andienarekin
bizi nai degu aurrera.

7- Andikan laister aditu nuen
belarrietan pregoya,
gu alabaten nola datorren
Durangotik orfeoia,
leku batetik adituko zan
orren kantuen orroya,
kristau oyek merezi dute
sonbreru orde z koroia.

8 - Beko fiestak akabatuta
kale andira giñan jaso,
ezin emanik egondu giñan
ordu betien lau paso,
erregiñatzat Dienci ta
tanboliñakin Damaso,
obiagorik egongo ote da
mundu onetan akaso?

9- Biba Mutriku eta Debarrak,
da Biba Durangokuak,
guztien partez milloi bana esker
Brontxe ondarrutarrak,
agradezitzen ondo dakigu
geuri ondo egindakuak,
zeruetara jasoko al zaitu
danok gure Jaungoikuak.

10- Ondo dakigu kale anditarrak
zuek zerana nagusi,
lenago ere zuen kalia
obetuen zan ikusi,
kalia orrek orlan ipintzen
nun ote dute ikasi?
Danon erregin or daukazute
Saguneko Dienesi.

11.- Mai andi baten gañian zeuan
kale andiko erregiña,
jendiak bera salutatutzen
eiten zuen alegiña,
ondo ederki ematen dezu
bada zerbaiten premiña,
obetuago emango zuan
pixkat pintatu ba ziña.

12.- Gure mutillak nobliak dira
da biotzetik zabalak,
orregatikan orren buruak
arturik daukatez alak,
erri guztia disfrazatuta
ustez ziran karnabalak,
orrelangorik etzan egingo
izan ba ziran makalak.

13.- Fiestarikan asko ein degu
estropaden izenian,
jendia ere aspertua da
geiago ezin egiñian,
da pelikulak atera ditu
bialtzeko zuzenian,
emen ikusi ez dituenak
ikusiko-itu zinian.

14.- Koziñeriak ere ez dezute
aurten eduki ain txarrak
zeuei danori jaten ematen
atera tuzte aparrak,
berez umilla eta garbiak
jenioz barriz azkarrak,
orregatikan agertu dira
gure mutillen indarrak.

15.- Amabostagerren bertsuarekin
banua despeditzera,
piska bateko erretirua
orain ba guaz artzera,
guregatikan gaizki esaten
barriro asten ba zera,
gaizki esanka gugana aurten
zertan etorri etzera.

GOIKO MENDATATIKK

ALEGRATU GAITEZEN

The musical score is written in treble clef with a key signature of two sharps (F# and C#). It consists of six staves of music with lyrics underneath. The first staff begins with a 3/8 time signature. The second staff changes to 2/4. The third staff changes to 3/8. The fourth staff changes to 5/8. The fifth staff changes to 3/4. The sixth staff begins with a 3/4 time signature and ends with a double bar line and a repeat sign.

A - le - gra - tu - gai - te - zen gaur-ko ga- ba- re- kin gu- re Je-
 sus o- na - ren e- to- rre- ra- re- kin, a- le- gra - tu gai- te- zen gaur-
 ko ga- ba- re- kin - gu- re Je- sus o- na - ren e- to- rre- ra- re- kin.
 Goi-ko men-di- e- ta- tik pas- to- ri- ak da- toz e- sa- nik ain- ge- ru- ak
 jai- o da- la Je- sus Es- pi- ri- tu San- tu- - ak e- mo- nik gra- zi- a a-
 ren kon- tze- zi- u- a be- ti da gar- bi- a

Goiko mendietatik
pastoriak datoz,
esanik aingeruak
jaio dalajesus,
Espiritu Santuak
emonik grazia
aren kontzeziñoia
beti da garbia.

Belengo portalian
estalpe batian
jaio da Jesus ona
ganadu artian,
astua ta idia
daukaz aldamendian
arnasaz berotzcko
oztutzen danian.

Ogcta laugarrcna
dogu Abendua
desio genduena
logratu genduan,
gabeko amabiak
jo daben orduak
gure salbadoria
jaio da munduan.

ERREPIKA:

*Alegratu gaitezen
gaurko gabarekin
gure Jesus onaren
etorrerarekin.*

ABENDU SANTUA DA TA GAUR DALA JAIO-JAIO

Gaur da-la jai- o - jai- o gaur da-la jai- o - tzi- - - a Se- mi- a jai- o ez-
ke- ro A- ma da don-tze- lli- a Ma- ri- a Je- sus Je- sus e- ta Ma-
ri- a Ma- ri- a, Je- sus.

• 1.- Abendu santua da ta
ia da denporia,
orain kantatu daigun
Jesusen jaiotzia.

2.- Gaur dala jaio jaio,
gaur dala jaiotzia,
Semiajaio ezker
ama da dontzellia.

3.- Ama Birjiñia,
nun dozu semia?
-Orra nun daukazun
Belengu portalian.

4.- Josepe ze ordu da?
-Maria, gaberdia.
Zeruko izar ederra
laster dogu parian.

Errepika:
Maria Jesus,
Jesus eta Maria,
Maria Jesus.

KAÑABERA OREKIN

Ka- ña- be- ra o- rre- kin za- go- zan gi- zo- na, Jaun- goi-ko-ak di- zu- la zu-
 ri e- gun o- na. ¿A- di- tu al de- zu i- xe- ren za- ra- ta- rik e- do ze- ru e-
 ta- ko ain- ge- ru kan- ta rik? O- rain pa- re ga- be- a Je- sus gu- re mai-
 te- a gaur zeu- re yai- o- tze- a ze- le - bra- tu tze- ra. Ain- ge- ru- ak kan- ta,
 ar- tzai o- nak dan- tzan, guz- ti- ok a- la- ban- tza zu- ri zor di- zu- gu, As- to- ak a,
 i- di- ak mu, ats e- gi- nik as- ko ba- de- gu. Ar- tu ma- ki- llak e- ta
 jan- tzi a- bar- kak, ar- tzai- ak joan di- ra- de Je- su- sen bi- lla. ¡A! zer a- le- gri- a dan
 dan- tzan jende gu- zi- al Sal- to brin- ko e- gi- ñik da- nak joan di- ra.
 dan- tzan jende gu- zi- al Sal- to brin- ko e- gi- ñik da- nak joan di- ra.

Azkue'k KAÑABERA ORREKIN izenez asten dau kantu au. Baiña deitura ori bigarren bertsoarena da. Asiera onela da:

1- Albako untzurrunian
 aitz baten ganian
 gizon bat arrantzuan
 itxas basterrian.
 Itandu bear diot
 ete daberen entzun
 Belenen gaberdiari
 zer gertatu zaigun.

2.- Kañabera orrekin
 zagozan gizona,
 Jaungoikuak dizula
 zuri egun ona;
 bart sentidu al dezu
 izeren zaratank,
 edo entzun zeruko
 aingeru kantarik?

3 - Gizon gazte eder bat
 egozjantzia zan,
 bart gaberdian legez
 emen igaro zan.
 Aren kanta soiñuak
 pozez aditurik
 gau guztia eman det
 arrain bat gabarik.

5 - Neu ere joango nitzan
 gaur a ikustera,
 barrubiña batzuek
 banijua esatca,
 baña erropa zarrak,
 eskuak utzak,
 nola sartu niteke
 Jaun baten ctxian?

4- Gizon gaztea etzan
 gu lez gorpuzduna,
 bart emen igaro dan
 gazte egaduna,
 ari zan Espiritu
 abisoa doiana,
 ipar sueztian
 erregiakana.

6.- Ncuk crc ardi narruak
 neukazan soñian,
 baña ementxe egondu naz
 bart-ko gau guztian.
 Abe Maria eginda
 esan egiozu
 arrantzale pobre bat
 emen naiatortzu.

7.- Arrantzale maitia
 neuk biotza nai det,
 urria ez zidarra
 ezerentzat ez det,
 orain aurrerantzian
 fede bizi bategaz
 bota tretza guztiak
 Jesusen izenian.

Bcste doiñu bat bc crabilten da kantu onetarako. Au da:

Al- ba- ko gul-tzu- rru- na aitz ba-ten gai- fii- an -, gi- zon bat a-rran-
 tzu- an i- txas baz-te-rrri- an -, ka- ña- be- ra o- rre- kin za- bil-tzan gi- zo-
 na -, Jaun-goi-ko-ak di- zu- la zu- ri e- gun o- na. A- lai- tu ta poz- tu gai-
 te - zen gaur-ko ga- ba- re- kin -, gu- re Je- sus o- na - ren e- to- rre- ra- re- kin.

IRU ERREGE

The image shows two staves of musical notation in G major and 2/4 time. The first staff contains the melody for the first line of lyrics, and the second staff contains the melody for the second line. The lyrics are written below the notes.

I- ru e- rre- ge da - toz o- ri- en- te- ti- kan Be- len- e- ra au-
rre- tik da- kar- e- la ar- gi i- zar e- der bat bi- de- a e- ra- kus- te- ra.

1.- Zcruko erregca
jaio zan orduan
munduan
Hcrodes erregea
enbidiaz betea
bildurtuten asi zan.

2.- Herodcs crregea
zek bildurtzen zaitu?
Esaizu.
Jaio dan infantea
zeurorrek il eitca
lograduko eztozu.

3.- Iru errege datoz
Orientetikan
Belenera,
aurretik dakarrela
izar argi eder bat
bidea erakustera.

4.- Eldu zireanean
Belcn erriko
portalera,
Jauna adozatzera
auspaz jausi zirean
belauniko lurrera.

5.- Ofrezietan dautsiez
euren presentek
noblealc,
Batak dakar urrea,
bestek mirrea
ta intsentsua bestek.

6.- Beste bide batetik
biurtuten dira
errira.
Herodescn asmuak
eta pentsamentuak
orain burlatu dira.

7 . - Herodes burlaturik
 gelditu zanean,
 berenean.
 agindu eban ilteko
 iñozente guztiak
 Belengo errian.

8 . - Ai ze negar andiak
 orduan Belenen
 eukezen!
 Amaren bularretik
 errukia bagarik
 daroez umeak ilten.

(Azkue'ren *Cancionero Popular Vasco*» tik artuta).

Ondarroa'n ba dago, berbetan bcintzat aldakuntza pixkat daukan beste bertso sail bat. Onek dira:

Iru errege datoz
 odeien artetik,
 Erregiak
 aurretik dakarrcla
 argi izar ederra
 bidiak crakustera.

Juan dira Erregiak
 izarren atzetik,
 bidian
 artcz eruan ditu
 eta ipiñi ditu
 -Belengo portalian.

Herodes burlaturik
 gelditu zanian
 azkcnian
 agindu cban ilteko
 ume txiki guztiak
 Belengo ziudadian.

Herodes'ek dirautse
 ainbat preguntegaz:
 Nora zuaz?
 Belengo ziudadera
 jaiio dan infantia
 adoratzera guaz.

Jesus Jose ta Maria
 topau zitucnian,
 Aldospian
 bertantxe jarri ziran
 Jauna adoratzera
 belauniko lurrian

Ai ze negargarria
 orduan Belcncn,
 ziraden
 amen bularretatik
 errukitu gaberik
 seiñak erioczan ilten.

Adoratzan dozuenian
 emcndik erduc,
 nik ere
 zuen Erregc ori
 diñozuen jaun ori
 adoratu nai neuke.

Bestc bide batetik
 biurtutcn dira,
 Erregiak
 Herodes'en asmuak
 cta pentsamentuak
 bertan burlatuak dira.

ERREPIKA:
Zeruko Erregia
jaiio zan orduan,
munduan
Herodes erregia
inbiriuz betia
bildurtuten asi zan.

BALIHRENJtIC

Lu - is gaiz-to-ak e-man le- nen-go ar-po- na-da, ba- le-a a- rra- pa- tze- ko txit

gi- zon o- na da; be-de- ra- tzi mi- lla e- rre- al zu- te- la jor- na-

la, es- ti- ma- tze- ko- a- zan or- du- ko ar- po- na- da.

1- Milla zortzireun da
cincuenta y cuatruan
gure donostiarrak
baletara juan,
orrelango konturik
zeñek du gogoan
etzitzaigun aztuko
denbora galduan.

2.- Donostiako jende
prestu ta noblia,
Gipuzkoa guzian
parerik gabia,
zeuek getariarrok
gauz onen zaliak
bisigua zala uste
al zenduten balia?

3.- Iois gaiztoak emanik
lenengo arponada
balia arrapatzeko
txit gizon ona da
estimatzekoa zan
alako arponada
bederatzi milla errial
ba zuen jornala.

4.- Jose de Karamelok
bigarren golpian
ederki portatu da
berc suertian,
baliari odola
bizkarra betian
etzitzayon gelditu
ito zan artian.

5.- Ondora juan átzaigun
balia il zanian,
etxcra etorri giñan
agiri etzanian.
Getariarrak artu
azaldu zanian
ez genioten kendu
lencngo esanian.

6.- Zuek getariarrok
besigua ugari
utzi ezaiozute
arren baliari,
ama igesi juan da
umia da ori,
segi ezaiozute
nai ba dczute ari.

'-Besteren gauzarekin
gizonen sasoa
ortikan ere bada
bertso baten gaia,
petxutikan sartuko
ziola arpoia,
kulpa geiago ez da
au da arrazoia.

&- Jose Manuel Serenok
indarrak ba ditu,
oien zartadakua
Getarian aditu,
Jende guzia orduan
omen zan arritu,
izugarrizko famak
ark ekarri ditu.

9.- Orixe da modua
gizona galtzeko,
petxua zabaldua
Luisek sartzeko,
paraje sagraduan
kolera jartzeko
injenio txit ederra
zeruan sartzeko.

10.- Getariar oriek
etziran izutzen
Antiguora juan da
balia ikusten,
paga biar zuenik
etzuen pentsatzen,
sartu baño lenago
bi txanpona zuzen.

Oanak.- Kantu au gure zarrak asko erabilten ekiena da. Baiña antxiñakoekaz gertaten dan eran, ez da doiñu bakarra erabilten.

Goiko au R.M. Azkue'k bere «Cancionero Popular Vasch»n agertzen dau, Hondarribian batutako íez eta iru bertso bakarrekin. Bere 1,2 eta 3, gure bertso zerrenda oñtan, 3, 4 eta 8 dira. Kantuaren deitura «Luis Gaiztoak».

Luis Gaizto ori, Azkue'k esaten dau ondarrutarra zala, nai eta irurogatak urte ziralala Hondarribian bizi.

*Antonio Zabala Aitak, «Auspoa» sailleko 133 zenbakian agertzen dau **Baliarenak** deitueagaz. Bertan esaten dau Ondarroa'ko Jose Mari Etxaburu gandik jaso zitula zortzi bertso. Eta bestetik Ondarroa'ko Euskaltzale Bazkuna'k, gerra aurretik Jose Ariztimuño «Aitzol» eri bialdutako paperetan be zortzi agertzen dirala, aldakuntza txiki batzukin.*

Guk antxiñako paper zarretan billatu doguzan lez, amar bertso oneik agertzen doguz.

Gaiñera, Ondarroa'n beste doiñu bat ezagunago zan eta au erabilten cben geienak. Pozik agertuten dogu:

EDURRA

Mi- lla zor-tzi-reun la- roi ta zor-tzi di- tu aur-ten- go ur- ti- ak e- ta ber-

tsu-ak a- te- ra- tze-ko dau-de mo- ti- bo aun-di- ak. E-lur-tzan-di- ak a- rra- pa di- tu

mm

men-di al-tu-ko jen- di- ak, go-ses da pe-naz il- go - di- ran ja- yo- ta

dau-den u- mi- ak.

1.- Milla zortzireun laroi ta zortzi ditu aurtengo urtiak eta bertsoak paratutzeko daude motibo andiak. Edurtza andiak arrapau ditu mendi altuko jentziak, pozez da penaz ilgo orte dira jaiota dauden umeak.

2.- Probintziatik Madri aldera bota dituzte partiak, guztiak dira desgrazia-zko barri txit negargarriak. Danak diote nola edurrez beterik dauden mendiak, ardi txabola baserri etxe kalerañoko guztiak.

3.- Nola egongo ote dirade an bizi diran tristeak, penatutzian bakar bakarrik arritzen gara guztiak, dudarik gabe pasau biardute otz andi eta gosiak istorian ba kontauko dabe andik datorren biziak.

4.- Elur andien pixuarekin tellatu danak jausiak, aixe ipar otzak pasatzen orma zarraren artiak, erdi itxirik dauden ate ta bentana zulo guztiak, etxe guztian korritutzen da beneno bildurgarria.

5.- Famili danak kuxkurturikan
dago bastertzo batian,
eskastxo duen leku epel ta
su apurraren aurrian.
Entzuten dira otso zaratak
bildurgarriak ateian,
etxe danaren jirari dabilta
zerbait iruntzi artian.

6.- Ganadu danak gosez il bear
bei txal eta ardiak,
bedar preskorik ez da agiri
tapau dirade guztiak,
gaztañak eskas artua gitxi
nagusiantzat garia,
Agustuan eramana dira
jan eztaiean txoriak.

7 - Azken eman du edur tokiak
ta bost kanan edurra,
kristau bizirik ezin pasatu
txara edo egur lekura,
dispentsa utsa plumarik gabe
au pena eta tristura,
mendi altuko labradoria
aurtengo urtian galdu da.

8 - Eguna juanda bildur da penaz
arratza dakar illuna,
biotza triste begiak negar
iturri bien modura,
Jesus onari erregututzen
Famili danak eztura,
arren libra gaizuzjauna
bestela eraman zerura.

9.- Konsideratu dezagun nola
egiten degun pekatu,
eta batera bildurrik gabe
Jesus maitea ukatu,
orregaitikan erakusten du
gu nola eskarmentatu,
zar eta gazte, pobre ta aberatz
danok kastigatzen gaitu.

10.- Nere biotza urtzen dijua,
negarra dator begira,
illundur,
negarra dator begira,
begira,
illundurikan daukadaz biak
moteltzen asi da miña,
sentidu danak gelditu naian
osola jira ta bira,
zerbait geiago kantau naiarren
ezin emanik begira.

(Bertso oneik TIBURTZIO URRUSOLO'k egiñak dira, 1888 urteko edurtean).

JSRRJÍLÍN - XNDIAREN-RK



Mi-lla zor-tzi-reun la-ro-gei ta-mar ga-rren ur-ti-ak'-sar-tu-rik,
 A-pril i-lla-ren o-gei ga-rre-na ja-rri da se-ña-la-tu-rik, Es-pañan
 e-ta es-tran-je-ri-an gu-zi-ak aotan ar-tu-rik bo-ta di-tuz-te
 pa-pe-rak da-nak o-so glo-ri-az be-te-rik, On-da-rru-ta-rrak ai-ek
 mu-ti-llak ez da en-tzu-ten bes-te-rik.

(1890'n arrain andi bat arrantzatu ebenondarrutarrak eta Tiburtzio Urrusolo'k bertso oñeik jarri).

- | | |
|--|---|
| <p>1.- Milla zortzireun larogei ta amar garren urtian sarturik,
 April illaren ogeigarrena jarri da señalaturik,
 Españan eta Estranjerian guziak aotan arturik
 bota dituzte paperak danak oso gloriaz beterik,
 «Ondarrutarrak aiek mutillak» ez da entzuten besterik.</p> | <p>2.- Egun orretan zer egin zuten emengo arrantzaliak,
 mundu guztiak jakin dezaten jarriko du istoriak,
 begira danok papera oni zabal zabalik begiak,
 gezurrik gabe jarriko ditut pasatutako egiak,
 baldin laguntzen ba dit onetan gurejaunaren graziak.</p> |
|--|---|

3.- Berrogei eta bat oñak luze dauzkan treñeru batian, amar gizon ta iru mutillak itxasora atera ziran, geienez ere legorretikan izango ziran iru millan, bildurgarrizko arrain aundi bat azaldu zan oien jiran, ta bereala persegitzeko gogoz preparatu ziran.

4.- Isidoro Elu oien patroiak esan zien laguneri, nai ba dezute arrimatzia ustoria egingo det ori, oga aurrera ara nun dagon errezjoko degu ori, gero kontuan egon guziok miñik egin gabe iñori, tiburoi kasta gaizto itxurako arrai itzala da ori.

5.- Allegatzian bere aurrera tira ondo arponada, ia mutillak, Ieku onian sartu iñola al bada, txikotak listo arriatzeko arrain oso aundia da, galduko gaitu guziok ondo trinkatzen ez ba da, artu labanak, ebaki sokak asko moduz asten ba da.

6.- Esponiturik momentu artan guztiz peligro andian azkar Liborio Bedialauneta jarri zan txalupa aurrian eta arturik arpoi ta soka bere besoan betian, garboz tiratu eta sarturik utzi zion aragian, oso egoki enkajatu zan lantza tripa barrenian.

7 - Ondo erituta jarri zanian orduantxe bai kontuak, Norestian barruna asi zan zabaldurikan eguak, buztan palakin singatzen zuben baporen aundien moduan, momentu artan bildurtuko etzan gizonik ez da munduan, bere arpoia libratu nairik errebenta zan orduan.

8.- Luzaro beian ibiliarren etorri zan azalera, iru lau aldiz eragin zigun makiña bat gorabera, bañon arturik era on baten txikotakin gogor bera, aldatu giñion Tengo lekutik arpoia buru partera, sokakin fuerte sagan arturik abia giñan etxera.

9- Goizeko amaika orduak ziran lenengo jo zutenian, gauba eginda zortzirak ia legorrera zutenian, zeinbat trabaju igaro zuten oiek bien bitartian, ezin lezake plumakin jarri klaro begien aurrean, ondar sekutan altxata utzi zuten bizi zan artian.

10- Ogei ta amabi pie zan luze, pisuz zazpireun arrua, ondoko arraya pustoki gabe diote dala eskaulua, ez du iñortxok ezagututzen ai au piztiya modua, Club Nautikuen baporak azkar Bilbo aldera dijua, ondarrutarrak sozio oidi orra zer erregalua.

«Arrantzale eguna»rako
Victor Ureña'k egiña.

III

Urertzean sortu
ta urertzean il,
ta bitartean
kantuz,
dantzan,
orruz,
txanpan,
Ondarrun maitale,
Ondarrun kutun:
ala beti
ekin daigun.

IV

Itxasuan
nai liorrian
gure amesak
beti Ondarrun,
berau lakorik
ez dogu guk iñun,
ezin iñun.
Itxasuan
nai liorrian
ezin aztu
gure Ondarru.
Katauriko pitxi arru
gure Ondarru.

*Guztiok Ondarru
gorau daigun,
izan daiten arru
lior eta itxasun*

*Gabiltzan beti gu
maitez ta alaitsu,
kaietan oiu,
uretan orru,
beti goratzen Ondarru.*

II

Aixe berdietan
edo ipar baltzetan
begira Antigua'ri
gure izarrari.

Errira etortean
kale ta kantoietan
zorutzen pozez,
umore onez,
kresal usaiñez.

Guztiok Ondarru...

Oarra: Victor Ureña. Ondarrutarra izan ezarren, emen egon zan urtietan lagunarte andia egin eban, eta musika arloan ugaria zan. Euskeraz ez-ekielako, lenengo bere erara doiñua ataraten eban. Origaitik «letra» batzuk biurri iruditzen dira. Pozik agertzen dau Kultur Etxe onek bere kantau, emengo arduradun izan zanari oroipen lez.

LANGOSTATfiN

Pi- ttu za- rran se- mi-ak E - an da- biz i- ru, lan- gos-ta- tan gaz-
 te - - nak o- ne-nak ur-ten du. Lan- gos-ta- tan gaz- te - - -
 nak o- ne-nak ur-ten du. I- txa- so ta le- o- rrez e- gu- nez e- ta gau-
 ez be- ti ga- biltz poz po- zez o- sa- su- nez, mai- ta - su- nez, a- lai- ta- su- nez
 - gu- re e- rri- a go- ra- tzen.

Errikoia

1- Pittu zarran semiak
Ea'n dabiz iru,
langostatatan onenak
gaztenak urten du.

2.- Yentia esanarren
au edo bestia,
Joakin'ek arrapatu
beti langostia.

3.- Gaubian berandu ta
goizian goizetik
Joakin Pittua doia
bestien atzetik

4.- Txalupatik urten da
andik «Maite»nera,
urrengo estasiñoia
«Soziedadera».

*ERREPIKA: Itxaso ta legorrez,
egunez eta gauzez
beti gabiltz poz pozez.
Osasunez,
maitasunez,
alaitasunez,
gure erria goratzen.*

*Oarra: Kantu au Ea'n batua da eta langostatatan andik ibiltzen ekien on-
darrutarrei ataratako bertsuak dira.*

AZTANEN PORTALEAN

A musical score for the song 'AZTANEN PORTALEAN'. It consists of five staves of music in G major. The first staff is in 4/4 time, and the second staff changes to 3/4 time. The lyrics are written below the notes.

Az-tan-en por-ta- le an ar- bo-la e-der bi, bat-a da la-ran- je a,
bes-te a ma-da- ri. La-rro- sa-txu-ak bost o- rri dau-kaz, kla-be- li- ñe- ak a- ma-
bi, gu-re u- me- a gu- ra da- be- nak es- kau be- ki- o A- ma- ri. Txiki-
txu- a nai- ze- la na- go neu as- tu- na, ez al na- zu bo- ta- ko kar-ka- ban
ba- rru- an.

Aztan'en portalean
arbola eder bi,
bata da laranja
bestea madari.
Larrosatxuak bost orri daukaz,
klabeliñiak amabi,
gure umea gura dabenak
eskau bekio Amari.
Txikitxua naizelako
nago neu astuna,
ez al nazu botako
karkaban barruna.

(R. M. Azkue. «Cancionero Popular Vasco»
(Canciones kuneras) (Seaska abestiak)

Jffíki HRRfINTZÍUÍfIK

The musical score is written on five staves. The first staff begins with a treble clef, a key signature of one flat (B-flat), and a 3/4 time signature. The melody starts with a quarter note, followed by a series of eighth and sixteenth notes. The lyrics 'Jai- ki a-r-ran-tza- li- ak po- ti- ña zu- en zai be- . ti. Jai- ti.' are written below the notes. The second staff continues the melody with similar rhythmic patterns, with lyrics 'E- rri- ku- ak ez da- ki i- txas- ta- rra- ren ba- rri- rik, lu- rra a- gur- tu ta i- txa-'. The third staff features a change in time signature to 2/4, with lyrics 'so- an e - guz- ki e- ta i- llar- gi. E- rri- ku- ak ez da- ki i- txas- ta- rra- ren'. The fourth staff continues with lyrics 'ba- rri- rik, lu- rra a- gur- tu ta i- txa- so- an e- guz- ki e- ta i- llar-'. The fifth staff is mostly empty, with a few notes and the word 'gi.' at the end.

Jai- ki a-r-ran-tza- li- ak po- ti- ña zu- en zai be- . ti. Jai- ti.

E- rri- ku- ak ez da- ki i- txas- ta- rra- ren ba- rri- rik, lu- rra a- gur- tu ta i- txa-

so- an e - guz- ki e- ta i- llar- gi. E- rri- ku- ak ez da- ki i- txas- ta- rra- ren

ba- rri- rik, lu- rra a- gur- tu ta i- txa- so- an e- guz- ki e- ta i- llar-

gi.

Jaiki arrantzaliak
 potíña zuen zai beti
 Errikuak ez daki
 itxastarraren berririk,
 lurra agurtu ta itxasoan
 eguzki eta illargi.

Ez dizut irikiko
 gau illunean aterik,
 etxeoak ez daki
 kalekoaren berririk,
 atoz eguna argitzen danean
 egongo gera alkarrekin.

HARKESAREN ALABA



da- la - de- si- o de- da- na.

1- Zeruak eta lurak
egin zituana,
memoria argitzera
atoz nregana.
Esperantza ba daukat
zerorrek emana,
kunplituko dedala
dcsio dedana.

2- Amoriozko penak
bertso larrietan
publika al ba nitza
bertso berrietan;
entcratu naiz ongi
enkargu oictan,
Sanjosc arratsaldcko
irru t'crdietetan.

3- Markes baten alaba
interesatua,
mariñeruearekin
cnamoratua;
deskubritu gaberik
bere sckretua,
amoriua zeukan
barrcna sartua.

4- Egun siñalia zan
goguan artzeko,
esan ziola aren
etxera joateko;
-Deseo dedan itz au
manifestatzcko,
zurekin Antonio
nago izateko.

5 - Zer esaten didazu
Juanita itz ori?
Tentatzen ai zerala
trazak ba dirudi.
Etzait zure gradurik
tokatutzen neri,
ez burlarikan egin
mariñeruari.

6 - Eduki dezakezu
ongi sinistua,
aspaldian nenguela
zugaz gustatuta.
Etzaitut nik utziko
desanparatua,
ala egiten dizut
gaur juramentua.

7.- Konformatu ziraden
alkarren artian
ezkonduko zirala
urrengo urtian.
Eskola ikasteko
bien bitartian
beraren erritikan
guztiz apartian.

8 - Ola disponiturik
jarri ziran biak
kartaz entenditzeko
alkarren berriak.
Formalidadiakin
jartzeko egiak,
baiñan etziran lo egon
amaren begiak.

9.- Alperrik izango dira
aserre gurian,
ez naute mudatuko
eternidadian.
Esposatu nai nuke
kariño onian,
Antonio Maria
etortzen danian.

10 - Ezin egon zan ama
itz ori sufritzen,
bereala asi zen
kartak detenitzen;
intentzio aundiagoz
ezkontza galdutzen...
Juanitak alakorik
etzuen pentsatzen.

11.- Amaren malezia!
Korreora juan ta
Antonio il zala
egin zuen karta.
Juanitaren tristura,
berri ura jakinda!
engainatua bestek
gezur bat esanda.

12.- Amak esaten dio:
Juanita neria,
galdu da diotenez
Antonio Maria...
Nik billatuko dizut
beste bat obia,
maiorazgo interes
askoren jabia.

13 - Ama, ez neri esan
orrelakorikan;
ez det nik bestegana
amiorikan.
Ezin alegra leike
nere barrenikan
komentzi ona
egonagatikan.

14.- Utzi alde batera
orrelako lanak,
ez ditut nik ikusten
zu bezela damak.
Nai ba dituzu artu
onra eta famak,
giatuko zaituzte
aitak eta amak.

15.- Denpora kunpliturik
galaia abian,
zer pasatu ote zan
aren memorian?
Kartarik artu gabe
juan da aspaldian,
inozente sartu zan
jaio zan errian.

16.- Au da lendabiziko
ark esan zuena:
-Zer da musikarekin
onratzen dutena?
-Markesaren alaba
kalian barrena
esposario zala
ark biar zuena.

17.- Desmaiaturik egin
zuen ordu bete,
gero nobia eske
itz bi egin arte;
inguratu zitzaion
makiña bat jende,
bigarren ordurako
il zan derrepente.

21 - Alkarren konpañia
guk ere nai ba degu
Birgiña, egiozu
Jaunari erregu,
kristau guziogatik
baldin al bazendu,
Iturrinok orrela
desaiatzen du.

18- Gaua pasau eta
urrengo goizian
entierrua zuen
bigarren klasian...
markesaren alaba
guztien atzian.
Zer pena izango zan
aren biotzian!

19 - Penarekin lerturik
Antonio il zan,
akonpañatu zuen
Juanitak elizan.
Maitasuna ba zion
esan dedan gisan,
geroztikan etzuen
osasunik izan.

20.- Erremedia ba lei
sentimentu ori
bitartzeko bat jarri
Jesus maiteari,
orazio egiñaz
Birgiña Amari,
zeruan gerta dedin
Antonio Man.

*Oarra: Iturriño mutrikuarra edo Sebero mutrikuarra lez ezagutzen
zan bertsolari onek, bertso errukitsu onak egiten jakin eban. Gaur
be atsegiñez abestuten dira bereak. Bertso oneik beste iru lau doñutan
abestuten dira inguruko errietan eta Ondarroan bertan.*

RHR JUANÍXE

Txa-lu-pa-txu bat, txa-lu-pa-txu bi San-ta Kla-ra-ren pa-ri-an
Neu-re a-nai-a an-txe da-tor-ke ba-ti-an e-do bes-ti-an... Neu-re a-nai-a:
zer ba-rr-i di-raz Mo-tri-ko e-rr-i o-ni-an? Ba-rr-i-ak o-nak
di-ra-dez bai-ña ja-zo da kal-te so-bri-a.

1- Egun batian ni ba'nenguan, onelan plaza betian;
kostela-kostel gaiñian, onelan plaza betian eta
ni ba'nenguan kostel-saltzian ainbeste jente-artian.
ezpabe gari-saltzian. Orrela bere esan bazeustan
Iru damatxu etorn ziran leku sekretu batian,
bata bestien atzian gariak eta zeu ta neu bere
irugarrenak pregunta eustan an konponduko giñian.
gariak zegan zirian. Ama neuria labarako da
-Besticntzako dirutan eta goiz edo arratsaldian;
zuretzat laztan-trukian. paseito bat emoidakezu
-Ez nagizula lotsatu, arren ama laban dan artian.

Ama labatik etorri ta
 mutil-usaiña etxian...
 -Anajuanixe, Ana Juanixe;
 zein da dauana etxian?
 -Katalinatxu auzokua da
 beroi laban dan artian.
 -Eztona ori Katalinatxu;
 bizarra dau okotzian...
 -Itxagon daizu, mutil, itxagon,
 argia piztu artian
 argia piztu artian eta
 ikusi zeu nor zarian.
 -Ama berorrek ez dauela nai
 neure osasunik etxian;
 biyotz-illunak egiten yataz
 argiya datorrenian...
 .Urten daik, mutil; urten daik, mutil,
 alako bentanarian,
 ama neuriak urten dagiyan
 kanpora sospetxerian...

2.- Egun batian ni ba'nenguan,
 Londres'ko Ziudadian,
 maitiarentzat joyak erosten,
 Tableru baten gañian,
 dama bateri galdetu neutsan
 joya ok zegan zirian.
 -Bestientzako dirutan, eta
 zeuretzat buru-trukian.

Eskerrik asko, dama galanta,
 Ez dot armarik aldian:
 neure arma onak itxi nituan
 Motriko erri onian,
 Motriko erri onian, eta
 Anajuanixe'n etxian.

3- Txalopatxu bat, txalopatxu bi
 Santa Klara'ren parian...
 Neure anaiya antxe datorke
 batian edo bestian...
 -Neure anaiya: zer barri diraz
 Motriku erri onian?
 -Barriak onak diradez, baña
 jazo da kalte sobria.
 -Oh, neure anaiya: ez edo-da il
 biyoren aita maitia?
 -Biyoren aita ez da il, baña
 jazo da kalte sobria.
 -Oh traidoria! ez edo-da il
 biyoren ama maitia?
 -Biyoren ama ez da il, baña
 jazo da kalte sobria.
 Ana Juanixe ezkontzen zala
 iñuen atzo kalian,
 Anajuanixe ezkontzen zala
 aita ta amaren lotsian...
 -Ezin izan lei ori egiya,
 neuk dot armia aldian;
 armia eta Gurutza bere
 neuk ditudaz bularrian;
 ta neure armak tiretuko dau
 bizi diraden artian.

Kapitan jauna: arria bela
 txalopa nabegantian,
 ainbat ariñen sartu gaitezan
 Mutriku erri onian,
 Mutriku erri onian, eta
 Anajuanixe'n etxian.

<p>4.- Ogetamairu dama lindatxu Motriku'n molla-gañian, Ana Juanixe antxe dalarik arexen danen artian... Batak «agur» ta bestiak «adios» Juanixe negar batian... -Ana Juanixe: zer pasatu da Motriku erri onian? -Zaldun gaztia: neuk bere ez dakit zeu nundikua zarian. -Neuk ba'dakit, ba, Anajuanixe, zeu nundikua zarian, eta noren alaba zarian. Damatxu baten arma-gurutzak</p>	<p>daruadaz bularrian; Ana Juanixe, ondo dakizu biok norenak dirian... Anajuanixe; ez eixu esan berbarik banidadian; despedidako gabian bere neure besuan ziñian; zeuk niri laztan, neuk zuri laztan, an despedidu giñian... Joya asko bere ba'nakartzuzan zuretzat izan ustian, Beste damatxuk gozako dituz zeuk ezin al dozunian.</p>
---	---

Etromantze au Azkue'k agertu eban, zatitxo baten, bere «Cancione-ro Popular Vasco»n Amorebieta'n batutako lez, «Udabarrian» izenagaz. Geroago Manuel Lekuona'k bere «Líteratura Oral Vasca»n, emen agertzen dan lez. Lekuona'ren esanetan Ondarru'tik jaso eban erromantze au. Azkue'k bost estrofatan agertu eban, era onetan:

<p>1.- Udabarria zarra erara Londres'ko zitudadean, maitearentzat oiak erosten denda aberats batean.</p>	<p>3- Besterarentzat dirueta ta zuretzat biotz-trukean. -Eskerrik asko, dama galanta, eztot armarik bear.</p>
<p>2- Dama galant bat topau neban tabladu baten ganean, kortesiagaz itandu neutsan oi orrek zegan zirean.</p>	<p>4 - Armak etxean itxi nituzan Motriku erri onean, Motriku erri onean eta Anajuanaren etxean.</p>

5.- Txalupatxu bat, txalupatxu bi,
Santa Klara'ren parean,
neure anaia antxe dator
Ana Juanaren legean.

BERRIOTXOFFRENFFK

Mi-lla zor-tzi-reun i- ru-ro-gei-ta au zaz-pi-ga-rren ur-ti-an, - - Kris-to-ze-ru-tik
 je-txi za-ne-tik o-ne-rai-ño bi-tar-te-an; i- ru o-bis-pok pa-sa-tu du-ten
 mar-ti-ri-u-a - fuer-ti-a! - Pe-na-ga-rri-a i-zan da oi-en mun-du-ko e-rre-ma-ti-
 a.

«Xenpelar»

1- Milla zortzireun irurogei ta
 au zazpigarren urtia,
 Kristo zerutik jetxi zanetik
 oneraño bitartia;
 iru obispok pasatu duten
 martiriaren fuertia!
 penagarriya izan da oien
 munduko errematia.

2- Baten bitzta kanta dezadan
 au da bigarren bertsoa,
 Elorrio'ko naturala da
 Balentin Berriotxoa;
 aita ta ama Bizkaia'n daude,
 semia an il da gaizoa,
 salbajietan kunplitu zaio
 eriotzako plazoa.

3- Amairu urtetik amabostera
 estudiyo bat ikasi
 gero aitaren ofizioa
 erakusten zuten asi;
 gogoa zeukan apaiz egmda
 naiago zuela bizi,
 tormentu gutxi mundu onetan
 eztu beregan ikusi.

4- Berrogei urte orain zituen
 gertatu ba litz bizirik,
 ogei ta zazpi lendabiziko
 estudiatzen asirik;
 seminario batera joan zan
 karpintero ikasirik;
 negarrez nabil aren pausoak
 ezin adierazirik.

5.- Seminario eder batian
Logroño'n apaiz egiña,
beste guziak bañan lenago
ikasirik esamiña,
buru abilla izanik eta
fede santurako fiña,
negarrez urtu leiteke artaz
akordatuko ba giña.

6- Ogei eta lau urte zituen,
etzeukan memori illa
kolejiyoko maisuak bezin
estudiante abilla;
obispo jaunak ezaguturik
justua eta umilla,
agindu zuen meza emanta
erretiratu zerilla.

7 - Goizeko labak jotzian meza
eman ta konfesiya,
barau egiñez obra onetan
pasatzen zuen denbora;
pobrerek iñoiz etortzen ba zan
eskian atal ondora,
bere ogia ari emanta
deboziyua gogora.

8- Logroño'n meza eman zuen ta
Elorrio'ra etorri,
predikatzen da konfesiyan
bere erriyan zan jarri;
Azpeitia'ko San Iñaziyo'n
bisita egin du sarri,
azkenerako arren pausoak
ziraden lastimagari.

9.- Suertatu da gure Balentin
Zan Iñaziyo'n sartzia,
pensatu zuen ango Padria
adbertzenzian jartzia,
nola nai zuen Santo Domingok
zeukan jantziya artzia,
ia fabore egingo ziyon
al bazuen ekartzia.

10- Ango Padriak maite izanik
ipiñi zuten kontuan,
agíndu ziyon sartu zerilla,
Ocaña'ko komentuan;
bire guziyan eskian joan zan,
gaubak askotan kanpuan,
bere gorputza azotatuaz
allegatzen zan lekuan.

11.-Allegatu zan Ocaña'ra ta
eman zioten jantziya,
berak nai zuen gorputzarentzat
alako penitentziya;
munduko gauza guztiyak beti
alde batera utziya,
neke trabaju naigabietan
artu du pazientziya.

12.- Gure Balentin Berriotxoak
egin zituen pausoak,
konsideratzen jarri ezker
dirade lastimosoak;
beti negarrez Jesusengana
zabaldurikan besoak,
aren biotza konsolatzen du
zeruko usai gozoak.

13.- Pasiatzera etzan joaten komentuko lagunakin, etxian zeukan tertulia ona errosario birekin; bere gorputza martirizatzen adore diziplinakin, orazioak balio ba du zeruan dago Balentin.

14 - Bakardadian oneraño zan Balentiñen istoriya, Ocaña'tikan Manila ziran zortzi ministro abiya, barkuan ere sufritu dute makiña bat komeriya, biotza penaz urtu laiteke ez baldin bada arriya.

15.- Ocaña'tikan Manilara'ño barkuan bost illabete, jakiña dago izango zala asko leguaz aparte; zortzi ministro oien artian au zan sobresaliente, gure Balentin ango maisuak obispo nombratu dute.

16.- Ango Paciriak agindu ziyon eskubidia artzeko predikatutzen asi zerilla kristiandadian jartzeko, konfesiyo ta barau egunak animaz akordatzeko, pekatuaren mantxa Judasen kalabozuan sartzeko.

17- Artua jan ta ura erari arri gañian lo egin, beti Jesusi erregututzen gutaz akordatu dedin; kristandadia nai zuenari konfesiyoak eragin, jakiña dago salbajiakin etzeguela atsegin.

18 - Erreinu artan gobernadore salbajien nagusiya, Jaungoikuaren bildur gabia estranjerian aziya; religiyoko fede santuan jarri nai duen guziya, agindu zuen plazan kentzeko ezpafarekin biziya.

19.- Garagarraren lendabiziko goizian ziraden asi, arratserako bost milletatik etzan granorikan bizi; fede santuko kristabak ilten zituenian ikusi, Balentin bere lagunetara abiatu zan igesi.

20 - Pedro Almato eta bestia Jeronimo Hermosilla, gero Balentin Berriotxoak saltatu zan oben billa; iru.obispo juntatu ziran, zeukaten biotz umilla, aien biziya laster izan da martirizatuta illa.

21.- Arrapatuta kate gogorrez
lotuak zeuden alkarri,
iltzeko eman sententziya ta
kartzela banatan jarri;
soldadu tropa baten erdiyan
gero plazara ekarri,
ezpatarekin lepuak mostu
dizkate lastimagarri.

22.- Orretarako eskatu zuten
ordu beteko lekua,
Jaungoikoari egin artian
beren ofrezimentua;
gubernadore batek eman du
pena kastidarekua,
iñor oietaz damutzen ba da
bertan kentzeko lepua.

23- Iru obispok oien korputzak
ogei eta lau orduan
iduki eta enterratuak
urrikaltzeko moduan;
Oriental'ko probintziyan da
Jeu-dat deitzen dan lekuan;
erregutzen det aien animak
gerta ditezen zeruan.

24.- Orra ogei ta lau bertso berriyak
ejenplo eder batian,
oroipengarri kanta ditzaten
pekatarien artian;
ai, gure Jesus, eskatzen dizut
grazi au errematian;
komeni da sartu gaitzazu
zeruetako atian.

*Oarra: «Xenpelar» = Juan Franzisko Petriarena Berrondo.
1835'ko Urtarrilla'ren 12'an jaio zan Oiartzun'go «Senpelarre» baserrian
eta Errenderi'n il zan, 1869'ko Abenduaren 8'an, naparrerigaixoagaz.
Balendin Berriotxoan 1861 urtean il eben Tonkin'en eta bertso oneik
1861'en egiñak dira.*

ERDRRRZ

ZRRR

KLRRR



Er-da-raz za-ra Kla-ra, eus-ke-raz Ar-gi-gi-a, zeu za-ra ze-ru-e-
tan i-zar bat ar-gi-a, zeu ze-ra ze-ru-e-tan i-zar bat ar-gi-a.

1.- Erderaz zara Clara,
euskeraz Argia,
zeu zara zeruetan
izar bat garbia.

2.- Augaitik mariñelak
dauke guraria
gaur emon dakizula
zor yatzun gloria.

3.- Zeure umetasuneko
denpora guztia
izan zan erreguzko
ejenplu bizia.

4.- Alkargana baturik
arri koskortxuak,
zenbatu oi zenduzan
errosariuak.

5.- Saritu izan zaitu
Birgiña Mariak
sendatu dituala
zure erabagiak.

6.- Palma eder bategaz
Erramu goizian
jarri izan ziñán
Asisko kalian.

7.- Amazortzi urtegaz
agur munduari
egm da izan ziñan
zelda maitelari.

8 - Jesus zalako zure
gutziz maitagarri,
Biotza emon zeuntsan
osorik berari.

9 - Jesusgaitik zenduan
bitza guztian,
jardun nekiak artzen
zeure gorputzian.

10- Baru, zilizio ta
lurraren gañian
lo egiñaz uda eta
negu gogorrian.

11 - Frantziskoren alaben
errelegiñua,
jarteko izan ziñan
lenengo autua.

12 - Ta millaka askoren
orain gurasua
zarialako zara
santa indartsua.

13.- Zu ikusita duaz
moruak igesi,
zugaz sakramentua
ebelako ikusi.

14 - Berrogeta amar monja
ditu janaritu,
ogi bakar bategaz
ta erdia gelditu.

15.- Andiak izan dira
zure mirariak,
orregaitik zaukaguz
gure gidaritzat.

16- Zeruan amatzat askok
zaitube alabetan,
lurrian gurasotzat
ez gitxik ondretan.

17 - Elexiak Jesusen
laguntzat kontetan,
bitarteko dogula
guk Klara kantetan.

18- Zaindu izan gaituzu
zure mantupian,
eskerrak gure Ama
ta urrengo artian.

SANTA CLARA

Kopla zarrak

- | | | |
|--|---|--|
| 1.- Bieta Santa Clara
euskeraz argia
zu zera zeruetan
dontzella garbia. | 4- Amazazpi urtegaz
monja sartu ziñan,
monja sartuta ere
Clara izan ziñan. | 7- Aita san Frantziskua
organua joten,
amabi apostolu
zeruan kantaten. |
| 2.- Amaren sabeletik
zenduan grazia
munduan izateko
ejenplu bizia. | 5.- Aita San Prantziskua
padrino arturik
esposa izan ziñan
aitamen ixilik. | 8- Asisko konbentuan
zinduten ikusi
ikusi eta bertan
moruak igesi. |
| 3- Alkargana baturik
arri koskortxuak
erreza oi zenduzan
errosariuak. | 6.- Eskuetan dan dauka
gauzaren andia,
Kustorio batean
Jesusa bizia. | 9- Berrogetamar monja
ditu janaritu
ogi bakar batekin
ta erdia gelditu. |

10.- Uso txuri ederra,
zeruan zer barri?
Zeruan barri onak
orain eta beti.

11- Monjen erregaluak
intxaurrak oi dira,
ai arek ere guztiak
bai piñak balira!

Oarra.- Kantua au dala ta ainbat itzaldi egin izan ditu Manuel Lekuona jaunak. Bai idatzi be ugari. Bere itzaldi baten, kantu oneik noizkoak ete ziran ari zala, onelako au esan eban:

Musikari ba gagozkio, egia esan, kanta onen musika ez da musika gergo-ritarra. Gaur kontatzen danez, konpasatua da, ta ain zuzen 6/8 konpasan. Baña gaur konpasatu diran musika asko, len konpasatu gabeak bait ziran; ritmo askatudunak; edo ta ritmo alternodunak. Gero konpasatu ziran. Nolanai dala, melodiaren edo doñuaren moduari edo erari ba gagozkio, Erdi Aroko (Edad Mediako) usai aundidun melodia da benetan. «Usia». .nolapait esan bear da ta. Edo ta alako aire ta ibilkera zaar antzeko bat... konpasian sartu ezkeru, zerbait aldatua ezik. Musikaren usai au, guk, bete-betea, XIV-XVgizaldikoa dala uste degu».

...«Eta geldi bedi gaurkoz au: Santa Clara'ren kanta eder au egiazki Erdi arokoa dala, zalantza gabe Erdiarokoa: XV-XIVgizaldian sortua eta gaur arte gure Erriaren aoan zorionez iraua».

JAUNGOIKOAK

Jaun-goi-ko-ak sal-ba-zai-za-la A-ma Er-re-gi-ña Ma-ri-a, mi-se-ri-kor-di-az-ko A-ma, guz-tiz da mi-ra-ga-rri-a, kon-fi-an-tza o-so-a-re-kin na-go zu-ga-na ja-rri-a.

Jaungoikoak salba zaizala
Ama Erregiña Maria,
miserikordiazko Ama
gustiz da miragarria,
konfiantza osoarekin
nago zugana jarria.

(R. M. AZKUE.)

«CANCIONERO POPULAR VASCO»

(Canciones religiosas)

(Eleiz abestiak)

(Azkue'k esaten ekian Apolinar Azpillaga au Donosti'ra joanda egoala Ondarroa'tik, eta abots oneko zala eta atsegiñez abestuten ekiana zala. Aregandik ikasi ebala doiñu au, gure erriko lez. Gaur SALBEA ize-nagaz, beste au erabilten da.)

SALBEA

Jaun-goi-ko- ak sul bau zai- za- la A - ma Bir- ji- ña Ma - ri-
a - Mi- se ri- kor- di- a ren A - ma guz- tiz da mi- ra- ga- rri- a. Mi- se-
ri- kor- di- a - ren A - ma guz- tiz da mi- ra- ga rri a - - kon- fi
an- tza o - su - a - ren kin na- go Zeu- ga- na ja - rri - a.

1.- Juangoikuak salbau zaitzala
Ama Erregiña Maria,
miserikordiaren Ama
gustiz da miragarria,
konfiantza osuarekin
nago zeugana jarria.

2.- Jaungoikuak salbau zaitzala
berriro dizut esaten,
zure graziaren premiñan
gu beti gera gertatzen,
zu bezelako beste amarik
ez degu iñun billatzen.

3.- Sispuruz eta sentimentuz
beti negarrez gaude gu,
negarrezko balle triste onek
zenbat dolore bizi du!
Zure begi errukitsu oiek
gugana itzuli egizuz.

4.- Balle triste onetatikan
irtetzen geradenian
erakutsi egiguzu Jesus
gure begien aurrian,
zure sabeleko frutua
guztion zorionian.

5- O klementisima deitzen dizugu
Ama gustizko garbia,
O piadosa zein andia dan
zure miserikordia,
penen artetik zugana gatoz
dultze Birgiña Maria.

6.- Anima galdu ez dezakigun
eskatzen dizut gogotik,
apartatutzen lagunduteko
pekaturako bidetik.
Jaungoikuaren Ama santua
erregu ezagu gugaitik.

7- Pekatariok egon gaitezen
guztiok prebenituak
izan gaitezen alkantzatzeko
guztiok mereziduak,
gure Jaun eta Jesukristoren
promesamendu guztiak.

8- Begira ezazu Ama maitea
gu nola bizi geraden,
peligro eta tentaziua
besterik ez dago emen.
Zure anparuan artu gaitzazu
betiko glorian. Amen.

PASIÑOIA

Je - su - kris - to ri ken du ez, ke ro po ka tu - a
kin bi - zi - tza, bel - din ez ba det ne - gar e - gi ten a
rriz - ko - a det bi - o tza pe - nak di - tut nik be - toz ar - gai -
tik pe - na - o - ri - ek - ni ga - na.

(Ondarroan abestuten dan PASIÑOIA Agustin Basterretxea jesuitak egiña da. Alaz eta doiñua, musika, bakana da. 61 estrofa daukaz).

1- Jesukristori kendu ezkeror
pekatuagaz bizitza,
baldin ez ba dot negar egiten
arritzkoa dot biotza.
Guztiok lagun
kantatu daigun
bere penazko eriotza.

2.- Mundua baiño askoz lenago
señalauriko eguna
eldu izan zan obretarako
gizonaren osasuna.
Argia bera,
alde batera
bestetik egun illuna.

3.- Eguen santu afal ondoan,
bere lagunak zitula
Jesussek iru diszipuluak
berba egin eutsen onela:
triste nago ta
lo ori bota
egizue emen gaubela.

4.- Getsemaniko Ortu santuan
auspez lurreán jarririk,
esketan eutsan librau eiala
Aitari Kaliza atarik;
Jesus penatzen,
odolez urtzen,
eta ez dot nik negarrik?

5.- Izerdi otza arpegian da
biotza penen artean,
triste arimea gorputza larri
agoliñako trantzean,
baiñan alan bere
egoan firme
Aitaren borondatean.

6.- Juduak Judas lagun arturik
etorri ziran itantzen,
Nazarenuan deritxon Jesus
emen ete da aurkitzen?
Judas orduan,
bake moduan,
dua musua emoten.

7.- Zeinbat direan Judasen legez
Kristoren adiskideak,
Kanpoti laztan barruti saldu
Ausirik bere legeak?
Kristiñau faltso
Arima gexto
Pekatarari traidoreak!

8.- Erantzun eban Jesus maiteak
Zeiñen billa zatoze ona?
Ara emen dago ezta besterik
Gura dozuen gizona:
Joateko eztot nik
S'oka bearrik
Ez eldu lagunok gana.

9.- Eskuetatik lotu izan eben
Guztion libertatea.
Zegaiti au zan geure onean
Jauriaren borondatea,
Urratuteko
Ainbat urteko
Pekatuaren katea.

10 - Diszipuluak euren Maisua
Ebenean ala ikusi
Bakar bakarrik bera itxita
Joan zirean igesi:
Pedro etorren
Bere ondoren,
Baña au bere urruti.

11 - Daroe bada Jerusalengo
Sazerdoteen aurrera,
Diszipuluen ganean eta
Dotriñan kontu artzera:
Kaifas gextoa
Aurrerengua
Astenjako itantzera.

12- Eztot nik diño Redentoreak
Predikatu ezkutuan,
agirian zan nire dotriña
Sinagoga ta Tenpluan:
Ez niri itandu
Asko dituzu
Entzun nabena munduan.

13 - Erantzuna aitu éban ezker
Soldadu batek bertati
Gora daroa bere besoa
Eta dirautso Jaunari:
Ikasi daizun
Zelan erantzun
Barriz Pontifizeari.

14.- Esan ta egin emoten deutso
Bere arpegi ederrean
Belarriondoko andi bat, zeñek
Ezarri eban lurrean:
Eta Zeruak
Dagoz lotuak
Au ikusten dabenean?

15.- Nozko dirade, Aita Eternua,
Tximistak eta arraioak,
Ez erretako an berbertati
Esku ain sakrilegoak?
Aingeru ostea
Eldu zaitea
Non dituzuez egoak?

16.- Baldin deungaro berba egin ba dot
Errazoia emon egizu
Baiña ezpadot, diño Jesusek,
Ezetan bere erratu,
Zegaiti arren,
Berba egin arren
Onela tratetan nozu?

17.- Indazujesus biotzekoa
Zeure sufrimentu ori,
Jakin dagidan zelan penetan
Emongo dodan arpegi
Parkatuagaz
Biotz osoaz
Etsairik andienari.

18.- Damu dot Jauna biotz guztitik
Zeu ofenditu izana,
Ez ez geiago pekatu-
Neure Jaungoiko laztana,
Lar da kulparik,
Betoaz agaitik
Pena orreik niregana.

19.- Sua egoan eskatzean ta
Pedro su atan berotzen,
Zerren biotzak amodioa ta
Otz asko eutsan sentitzen
Su orren keak
Begi bereak
Negarrez bete zituen.

20.- Zerren ollarrak ez eban emon
Birritan bere soñua
Non iru bider ukatu eban
San Pedrok bere Maisua:
Ezta besterik
Okasiñorik
Ateraten dan pagua.

21.- Kaifasek barriz itantzen deutso
Egiñik juramentua
Esan eidazu, Jesus bazara
Mesias prometidua
Alan ezpada
Zetako izan da
Engañatea mundua?

22.- Ondo ekian Jesusek nora
Joean konfesiñoia
Topetan eban kondenetako
Kaifasek okasiñoia
Eta arekin
Gura eutsan egin
Ilteko akusaziñoia.

23.- Alan be baietz erantzuten dau
Aitari begiraturik
Baita Kaifasek bere deadar
Soñekoak urraturik
Blasfemuena
Da onen pena
Ia dago kausa egiñik.

24.- Jagiten dira konziliotik
Ta artuten dabe bidea
Amargurara, non Pilatosek
Edukan bere etxea
Zan Erromako
Denpora atako
Juduen Presidentea.

25.- Juezak diño emongo badot
Gizon au eriotzara
Ekarri egizuz kausa justuak;
Eta ezpadira, zetara
Narabilzue,
Eroaizue
Or Herodesen aurrera.

26.- Aita Eternuan jakituria
Dauko munduak zorotzat,
Agaiti diño Errege orri
Jantzi tunika zuri bat:
Ezpabe nola
Zeruko estola
Erosiko zan guretzat.

27.- Esan eutsien Pilatoseri
Juduen Sazerdoteak,
Uste al dozu ez doguzala
Guk bere geure legeak?
Dau blasfemadu,
Merezi ditu
Eriotza ta azoteak.

28 - Onek esan dau, izanik arotz
Pobretxo baten Semea,
Dala Jainkoaren Semea eta
Judeako Erregea
Ilten ezpozu
Ezara ez zu
Zesarrea adiskidea.

29,- Gura eukean juezak Jesus
Eriotzatik libradu,
Zegaiti bere inozentzia
Ondo eban ezagutu
Baiña juduak
Dagoz itsuak,
Ez eutsien permitidu.

30.- Eriotza bat eginda, diño
Dago Barrabas kartzelan,
Nor nai dozue, Nazarenu
Edo a librau dagidan?
Da oiturea
Bat libretea
Zuen Pasko egunean.

31 - Osta aotik atera eban
Asi zirean deadarrez:
Librau egizu Barrabas; baiña
Jesus Nazarenu ez:
Orrek bear dau
Biziro penau
Abe batean doloz.

32 - Ostera itantzen dau Pilatosek
Baiña zer kausa emon dau?
Israeleko Errege bada,
Esatea da pekatu?
Areik deadar
Errege Zesar,
Ori kurutzean iminzu.

33 - Justiziako lege guztiak
Itxirik alde batera
Salbadorea kondenetan dau
Gogor azoteetara:
Zeru altuak
Zer dekretuak
Datoz ortikan lurrera.

34.- Jainkoa bera, zeñek dadukan
Mundua loraz jantzirik,
Kortesi baga bere erropak
Tunikaraiño erantzirik
Narru gorrian
Egun argian
Itxi eban lotsaturik.

35 - Nondik zarie gaba ta odeiak.
Illuntasuna non zara,
Zelan ezatoz Birjiñearen
Seme eder au estaltzera?
Ola eguzkia
Zeure argia
Bialdu egizu atzera.

36.- Bost milla azote eta geiago
Loturik kolumna baten
Azi zirean iru borrreru
Bere espaldetan emoten:
Ibai bat zelan
Odola alan
Asi ziran zan jausiten.

37 - Arriak eta Salbadoreak
Biak alkar zirudien
Zegaiti ezan onen aoti
Sentimenturik entzuten:
Marmolak eurak
Golpe kruelak
Dituenean artuten.

38.- Pillaretikan biziro Jauna
Soldaduak askaturik,
Joakoz arin adoretara
Burlaz Errege egiñik:
Bere koroa
Arantzazkoa
Buruan estu josirik.

39- Mantu santarra soñean eta
Kañabera bat eskuan:
Onelan Jesus tratetan eben
Pekatoriak munduan,
Mundua bera
Redimietara
Jauna etorren orduan.

40.-Jesus onelan ikusi eta
Pilatos errukiturik,
Diño barriz: nik eztot aurkitzen
Gizon onegan errurik;
II egizue
Nai badozue
Errornan ezta legerik.

41.- Areik deadar: Jauna dalako,
Pilatos, bildur bazara,
Datorrela arin orren odola
Geure arimen ganera:
Eztau ardura
Geure kontura
Kondena egizu krutzera.

42 - Juez gextoak Sazerdoteen
Esana egiteagaitik,
Publiketan dau sententzia bat,
Ez iñok okerragorik;
Eta gura dau
Burua librau
Jainkoaren odoletik.

43 - Alper alperrik Presidentea
Garbitzen dozak eskuak,
Juez justotzat eduki azan
Hipokrita ori munduak:
Loituta ago;
Baña geiago
I baño bere juduak.

44- Krutze baten mundu guztiko
Pekatuak zituzala
Abiatu zan Kalbariora
Jesus lapur bat bezela:
Artu krutzea
Au da bidea,
Galduko gara bestela.

45 - Salbadorea pausu bat bere
Ezin emonik aurrera
Krutze astunak azpiraturik
Benzidu eban lurrera.
O pekatua
zure pixua
Karga guztia zu zara.

46 - Ezin bakarrik eroan eban
Zalako guztiz astuna,
Eta orregaiti emon eutsien
Zirineoa laguna:
Ditxazko gizon
Zara su Simon
Nork leukan zure eguna!

47.- Bide onetan joanean
Kalbarioko mendira,
bere Semea kontenpletako
Ama egoan begira:
An dira penak
An tormentuak
Martirioak an dira.

48.- Ama Birjiña afligidea
Itxi egizuz begiak,
Estaldu zaite, ain baga bere
Asko daroa Semiak
Tormenturikan;
Bat bere itzikan
Ezteutsu itxiko negarrak.

49.- Bialtzen dituz Amak begiak
Semearen ikustera;
Baiña biotzak sufridu ezinda
Biurtzen dira atzera:
Datoz agaiti
Begiatati
Biotzak berba egitera.

50.- Semearenak esaten deutso
Badakizu Ama maitea
Asko sentitzen badozu bere
Onelan ni ikustea;
Bestelan ezin
Zeruarekin
Egingo dala bakea.

51.- Neure Aitaren borondatean
Zeurea beti daukazu,
Aren esanak naroa: Agur,
Bendiziñoia indazu;
Neure ordeaz
Pekatariaz
kontua zeuk edukazu.

52- Amak diñotso: zoaz neure Jesus
Itera ordu onean,
Baiíñan zelan ni itxi nai nozu
Bakartade ain tristean?
O, zelanbait nik,
Eta ondo pozik
Jarraituteko (?) neukean.

53 - Salbadoreak onelan penaz
Egiñik bide erdia,
Veronikaren karidadeak
Kendu eutsan izerdia:
Obra onen pagu
Jaunak isten du
Pinturan bere arpegia.

54.- Joazan bada béra laguntzen
Jerusalengo Alabak,
Penaren andiz begietati
Urturik euren biotzak;
Eta eurakana
Biurturik Jauna,
Dio: Ay emakumeak!

55 - Arbola eze au erre badau
Pekatuaren su garrak,
Zelan eztituz abrasaduko
Su orrek egur igarrak?
Ez niri negar,
Eztot nik bear,
Pekatuari negarrak.

56 - Eldu zirean Kalbariora,
Egozan prest borreruak
Mundu guztiko Egilleari
Josteko oiñak ta eskuak,
Ikusi eian
Bigarren Adan
Arbola atan munduak.

57 - Nok ditu esku ta oin orreitan
Burdinēagaz idigi
Gorroto edo amodioak
Odolezko lau iturri?
Bularretikan
Ate egiñikan
Amodioa da agiri.

59 - Austen dirade arnak, zelan
dagoz biotzak osorik,
Krutze batean dolorez ilten
Geure bizitza ikusirik?
Pekataria
Gora hegiak
Negar iturri egiñik.

58.- Balrzejantzirik ezkutetan dau
Zeruak bere arpegia,
Lotseagaiti gelditzen dala
Gorriturik irargia,
Gau illunean
Egoanean
Altuena eguzkia.

60- Gogoti negar egingo deusut
Jarririk zeure oiñetan,
Neure Jaun ona zaitudalako
Imiñi krutze orretan:
Daukat damua
Zu ofendidua
Gauza guztien ganean.

61 - Izanagaiti, Jesus maitea,
Neure pekatua andia,
Preziosua da zeure odola,
Au dakidala balia:
Piedadea
Neure Jabea
Jauna miseriakordia.

ERREPIKA:

*Damu dot Jauna Biotz guztitik
zu ofendidu izana, ez ez geiago
pekaturikan neure Jaungoiko laztana
ezer kulparik betor zeuganik,
pena oriek niregana.*

*Oarra: Basterretxea au Ispaster'tarra zan. Bertso oneik lenengo bizkaieraz
egin gero gipuzkeraz be agertu ziran eta ogetak bidar argitaratuak dira.
1700 urtean jaio zan. Doiñu au nok ekarri eban ez dakigu, besteakandik
ez bardiña dalako.*

Bikzario jauna erc

ANTIGUAKO AMARI

Milla be-de-ra-tzi re-un ga-ñe-ra lau ur-te - pe-le-gri-na-zi o-bat dis-
 po-ni-tu du-te, A-gos-tu-a-ren o-ge-ta bat da se-ña-la-men-te, On-da-
 rru-ra e-to-rr-i-da ma-ki-ña bat jen-te - A - ma An-ti-gua-ku-a bi-si-ta-tu du-
 te.

te.

(Bertso oneik 1904 urtean Aniiqua'ko Ama'ren irudia errira ekarri eta egin ziran jaietan JOSE MAMJEL IMAZ'ek egiñak dira)

1- Milla bederatzireun
 gañera lau urte
 peleginazio bat
 disponitu dute,
 Agostuan ogeta
 bat señalemente,
 Ondarruara etorri da
 makiña bat jente,
 Ama Antiguakua
 bisitatu dute.

2.- Antiguako eleizatik
 plazara ekarri,
 bere guardian ba izan
 jendia ugari.
 Musika ta aingeru
 bandera ta guzi,
 aurretikan apaizak
 guztien nagusi,
 alabantzak ematen
 Birgiña Amari.

3.- Plazan paratu zuten
 beretzat lekua,
 loraz apaindurikan
 altara santua,
 Fray Bartel jaunarentzat
 berriz kurpitua,
 erriko prinzipalak
 zan disponitua,
 Biba Ondarruako
 Aiuntamentua.

4.- Bandera ta lujuak
 balkoi bentanetan
 arku ederrak berriz
 kale kantoietan,
 arbola ostruakin
 arraunak e bertan,
 lora txuri-txuri
 ia tapaurikan,
 zenbat kristau pasada
 oien azpitikan.

5.- Fray Bartel jaunarekin
gaude arrituak,
negar eragin digu
orren predikuak,
Amari erreguka
altzaurik eskuak,
klaro esplikatatu ditu
fedeko kontuak,
zeiñi ez dio irten
begitik malkuak.

6- Sermoi au egin zuan
Ondarruko plazan
zortzi milla arima
gutxienez ba zan,
Fray Bartel Jaun orretzek
kontu asko esan,
Jesukristaren dotriña
irakurria zan,
kanta dezagun orain
bere alabantzan.

7- Probintziatik jente
asko etorrita,
Bizkaiatik geiago
ala komenita,
Birgiña Amarengana
biotzak poztuta,
ainbeste milla kristau
danak auzpeztuta,
Imagiña adoratzen
belaunikatuta.

8 - Bizkaian ba zeguan
Jaun onen bearra
Jesusen dotriñari
emateko indarra,
Bizkaiko jauna ere
ez degu ain txarra,
edadian aurrera
bastante da zarra,
sermoya predikatzen
txit gizona aízkarra.

9.- Engañatuta gabiltz
munduko guztiak,
erlejiua galtzen
persona gaiztuak,
Jesusek gugatikan
emandako pausuak,
manifestuan orra
eleizan santuak,
bizi geran artian
atera kontuak.

10-Jesusen pausuetan
akordatzen gera
guregatik zer moduz
ibili zan bera,
ikusi nai ba degu
begira kurutzera,
ultziakin josirik
esku oñetara,
etsaiak jarri zuten
modu orretara.

11- Arantzazko koroia
etsaiak sartuta,
buru guztia dauka
dana zulatuta.
Lepotik dariola
odola tantua,
ain zitalak izanik
gure pekatuak
Gurutzan or dago
Jesus penatua.

12.- Nai ba deguz arimak
zeruraño jaso,
sekulako desterra
pekatua preso.
Luziferren galdera
berua da oso,
infernuko etsaiari
zertan egin kaso,
Jesukriston banderan
egon allimoso.

13.- Ama Antiguakua
biotzen graziak
arrigarriak dira
orren mirariak,
zuzen biar gaitu
zure mesediak,
Aita san Pedro iriki
zeruko atiak,
loria gozatzeko
arima tntsiak.

14.- Agoniako trantza
etorri ezker
luzaro bizitzarik
ez degu espero.
Izerdi tantuakin
gorputzetik gero,
azkenengo arnasak
iges egin gero,
Jesusen sententzia
etorriko zaio.

*I 5 - Ama Antiguakua
orain erremata,
agonian urrena
eriotza da ta,
gure defensoria
imagiña da ta
laguntzaliak ere
makiñabat santa,
Zeruan sartutzeko
alabantzak emanda.*

*Oarra: Jose Manuel Imaz Etxegarai. Mutriku'n jaiotarren Onda-
rroa'n bizi zan. 32 urte eukazala, 1909'ko Maiatzaren 24'n itto
zan. 13 lagun itto ziran batera. Bere osaba Fermin Imaz'ek «Ga-
lerrera» deiturako bertsoak egin zitun, ondamendi a gogoratuaz).*



ONDARROA'ko antxiñako abeslari txikiak

AURKIBIDEA

1898'ko Estropadetakuak	9
Portugalete'ko estropadak	11
1926 Urteko estropadetakuak	14
Kalandiko erregiñe Dienesi	17
Goiko Mendietatik alegratu gaitezen	20
Abendua santua da ta gaur dala jaio-jaio	22
Kañabera orrekin	23
Iru errege	25
Baliarenak	27
Edurra	29
Arrain andiarenak	31
Falua erreala	34
Amar mariñel ito dirade	36
Aratustetakoak «Karnabal» kantak	38
Aratuste egunekuak	40
Kuadrillan batzen gera	42
San Juan'ek diño	44
Besigu usaiña	45
Txomin' Agirre	46
Gure Ondarru	48
Langostatan	50
Aztanen Portalean	51
Jaiki arrantzaliak	52
Márkesaren alaba	53
Anajuanixe	56
Berriotxoarenak	59
Erderaz zara klara	63
Bieta Santa Clara	65
Jaungoikoak	66
Salbea	67
Pasinoa	68
Antigua'ko Amari	75